

**GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA  
S.A.U. ETA GIPUZKOAKO HONDAKINEN  
KONTSORTZIOARI ITZULPEN ZERBITZUA  
ESKAINTEKO DAGOKION KONTRATUA  
ARAUTZEKO BALDINTZA ADMINISTRATIBO  
BEREZIEN PLEGUA**

## **AURKIBIDEA**

<b>I.</b>	<b>KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK</b>	<b>7</b>
1	<b>KONTRATUAREN XEDEA</b>	7
2	<b>KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA</b>	7
3	<b>ENTITATE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO ORGANUA</b>	8
4	<b>KONTRATUAREN EPEAK</b>	8
	4.1 Kontratuaren epe nagusiak	8
	4.2 Kontratuko epeei buruzko beste xedapen batzuk.	9
5.	<b>LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA</b>	9
6	<b>KONTRATU-DOKUMENTUAK ETA KONTRAESANAREN KLAUSULA OROKORRA</b>	10
7	<b>KONTRATATZAILEAREN PROFILA</b>	11
8	<b>JURISDIKZIOA</b>	11
<b>II.</b>	<b>KAPITULUA: KONTRATUAREN ESLEIPEN PROZEDURA ETA FORMA</b>	<b>11</b>
9	<b>ESLEITZEKO PROZEDURA ETA FORMA</b>	11
10	<b>LIZITATZAILEENTZAT ESKURAGARRI DAGOEN DOKUMENTAZIO ETA INFORMAZIOA</b>	11
11	<b>GAITASUN BALDINTZAK</b>	11
12	<b>PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA</b>	13
	12.1 Dokumentazioak bete beharrekoak	13
	12.2 Eskaintzak aurkezteko lekua eta epea	13
	12.3. Eskaintzak aurkezteko modua	14
13	<b>IZAPIDETZEA ETA NEGOZIAZIO-FASEA</b>	18
14.-	<b>ESKAINZTA EZOHIKOA EDO NEURRIZ KANPOKOA</b>	21

<b>15.- KONTRATAZIO MAHAIA</b>	<b>21</b>
<b>16.- ESKAINTZAK SAILKATZEA, KONTRATUA ESLEITZEA ETA JAKINARAZTEA</b>	<b>21</b>
<b>17.- ESLEIPENDUNARI ESKATURIKO DOKUMENTAZIOA</b>	<b>23</b>
<b>18.- BEHIN BETIKO BERMEA</b>	<b>23</b>
<b>19.- KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA</b>	<b>24</b>
<b>20.- DOKUMENTAZIOAREN ZAINZA</b>	<b>24</b>
<b>III. KAPITULUA: ALDERDIEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK</b>	<b>25</b>
<b>21.- KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK</b>	<b>25</b>
21.1. Ordaina jasotzeko eskubidea.	25
21.2.- Kontratua lagatzea	25
21.3.- Azpikontratazioa	26
21.4.- Ezinbesteko kasua	27
<b>22.- KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK</b>	<b>27</b>
22.1. Lan Egitaraua osatzea	27
22.2. Zerbitzuak egikaritzea.	27
22.3. Baimen, lizentzia eta baimentzeak	28
22.4 Arrisku eta mentura	28
22.5 Kalteak	28
22.6 Aseguru polizak	28
22.7 Araudia betetzea	29
22.8 Publizitatea	29
22.9 Bestelako betebeharrak	29
<b>23.- KONTRATISTAREN KONTURAKO GASTUAK</b>	<b>29</b>
<b>24.- KONTRATAZIO ORGANOAREN ESKUBIDEAK (GHKREN ADMINISTRAZIO KONTSEILUA)</b>	<b>30</b>
24.1 Kontratua aldatzea.	30
24.2 Ikusapena, zaintza eta kontrola	31
24.3 Zigorrak	31
24.4 Kontratua indargabetzea	31

24.5 Kreditu-eskubideen lagapena	31
24.6 Araudi aplikagarrian aitortutako eskubideak	32
<b>25.- KONTRATAZIO ORGANUAREN BETEBEHARRAK</b>	<b>32</b>
25.1 Kontratistari kontraprestazioa ordaintzea	32
25.2 Bestelako betebeharrak	32
<b>IV. KAPITULUA: KONTRATUA GAUZATZEAREN GARAPENA ETA JARRAIPENA</b>	<b>32</b>
<b>26.- LAN EGITARAUA.</b>	<b>32</b>
<b>27.- LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA</b>	<b>33</b>
<b>28.- ZERBITZUEN ZUZENDARITZA</b>	<b>33</b>
<b>29.- KONTRATISTAREN ORDEZKARIA</b>	<b>33</b>
29.1 Izendapena	33
29.2 Zereginak	34
<b>30.- ZERBITZUAK EMATEKO ERREGIMENA</b>	<b>34</b>
<b>31.- KONTRATISTAREN BITARTEKO MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK</b>	<b>35</b>
<b>32.- ARRISKUA ETA MENTURA ZERBITZUAK EMATEAN</b>	<b>35</b>
<b>33.- KONTRATUAREN XEDE DIREN ZERBITZUAK EGIN BITARTEAN DESADOSTASUNAK ERABAKITZEA</b>	<b>35</b>
<b>34.- DOKUMENTAZIOA KONTROLATU ETA EMATEA</b>	<b>36</b>
34.1 Dokumentazioaren kontrola	36
34.2 Dokumentazioa ematea	36
<b>35.- ZERBITZUAK HIRUGARRENEK EGITEA</b>	<b>36</b>
35.1 Hirugarrenen azpikontratazioa	36
35.2 Hirugarrenek emandako zerbitzuen erantzukizuna	37
<b>36.- PROIEKTUA ALDATZEA</b>	<b>37</b>
36.1 Aldakuntzak kontratistak hala eskatuta	37
36.2 Aldakuntzak GHKk hala eskatuta	37
<b>37.- ZERBITZUAK HARTZEA</b>	<b>38</b>

37.1 Zerbitzua gauzatzeko epea	38
37.2 GHKren jarduera, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren kontura	38
<b>38.- BERME ALDIA</b>	<b>38</b>
<b>V. KAPITULUA: KONTRATUAREN PREZIO EKONOMIKOA</b>	<b>39</b>
<b>39.- KONTRATISTAREN ORDAINSARIA</b>	<b>39</b>
39.1. Kontratatistaren ordainsariaren osagaiak	39
39.2. Fakturazioa eta ordainketa	39
39.3. Prezioen berrikuspena	39
<b>VI. KAPITULUA: ZIGORRAK</b>	<b>39</b>
<b>40.- KONTRATUAREN BEHARKIZUNAK EZ BETETZEAK SORTUTAKO ZIGORRAK ETA ISUN HERTSATZAILEAK</b>	<b>39</b>
<b>41.- EZ BETETZEEN MAILAKETA</b>	<b>40</b>
41.1 Ez betetze larriak:	40
41.2 Ez betetze arinak	41
<b>42.- ZIGORRAK ETA ISUN HERTSATZAILEAK EZARTZEA</b>	<b>41</b>
42.1 Zigorren araubidea	41
42.2 Zigorrak mailakatzea	42
42.3 Zigorrak eta isun hertsatzaileak eguneratzea	42
<b>VII. KAPITULUA: KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEA ETA IRAUNGITZEA</b>	<b>43</b>
<b>43.- KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEA</b>	<b>43</b>
<b>44.- IRAUNGITZE ARRAZOIAK</b>	<b>43</b>
44.2.1 Indargabetze arrazoiak	43
44.2.2. Indargabetzearen ondorioak	44
<b>I. ERANSKINA. ADIERAZPEN ERANTZULEA SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATU LEGEAREN TESTU BATERATUAK 60. ARTIKULUAN AIPATU KONTRATATZEKO DEBEKU EGOERAN EZ DAUDELA SARTUTA DIOENA.</b>	<b>45</b>
<b>II. ERANSKINA. PROPOSAMENA GHK-REN SARRERA ERREGISTROAN ENTREGATZEKO EREDUA</b>	<b>46</b>
<b>III. ERANSKINA. ENPRESA ATZERRITARREN DEKLARAZIOA</b>	<b>47</b>



<b>IV. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKORAKO EREDUA</b>	<b>48</b>
<b>V. ERANSKINA. JAKINARAZPENAK BIDALTZEKO POSTA ELEKTRONIKOKO HELBIDEA(K)</b>	<b>49</b>

## **I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK**

Baldintza agiri honetan “**GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA SAU ETA GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOARI ITZULPEN ZERBITZUA**” emateko kontratua arautuko duten administrazio baldintza bereziak jasotzen dira. Baldintza agiri honetan zerbitzuak Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A.U.-ri emango zaizkiola esaten denean, halaber beharrezkoa duenean zerbitzuak Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari ere eman behar zaizkiola ulertuko da.

### **1 KONTRATUAREN XEDEA**

Kontratu honen xedea “**GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA SAU ETA GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOARI ITZULPEN ZERBITZUA**” ematea da. Ez da aldaerarik onartzen.

Kontratistak kontratu honetako xede diren prestazioak emango ditu, agiri honetan eta Ezaugarri Teknikoen agirian, zein kontratu-izaera duten gainerako dokumentuetan xedatutakoaren arabera, eta agiri honetako 6. klausulan xedatutakoari jarraiki.

Kontratuaren xede diren zerbitzuak Ezaugarri Teknikoen Agirian definitzen den jardueraren esparruan egingo dira.

Kontratuaren xedearekin bat datozen zenbaki-kodea honakoa da: 74.30.11 (Itzulpen zerbitzuak); -Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 451/2008 Erregelamenduak (EE), 2008ko apirilaren 23koak, onartutako Produktuak Jardueraren arabera Sailkatzeko nomenklaturan jasoa, eta 79530000-8 (Itzulpen zerbitzuak) –Kontratu etako Lexiko Komuneko (KLK) nomenklatura, Europar Batzordearena, Kontratu Publiko etako Lexiko Komuna onartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2195/2002 zk.ko Erregelamendua aldatzen duen Batzordearen 2007ko azaroaren 28ko 213/2008 Erregelamenduak (EE) ezarria-.

### **2 KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA**

Kontratu honek izaera pribatua du, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak, Sektore Publikoko Kontratuaren Legeari buruzko Testu Bategina (aurrerantzean SPKLTB) onartzen duenak, 20.1. artikuluan xedatutakoari jarriki; eta Baldintza Administrazio Berezien Agiri honetan (aurrerantzean, baldintza administrazioen agiria edo Agiria) eta haren eranskinetan zein bestelako kontratuaren dokumentuetan xedatutakoak arautuko du, 6. klausulan xedatutako baldintzetan.

Prestatzeari, adjudikatzeari, ondorioei eta iraungitzeari dagokionez, adierazi den moduan, kontratua arautuko dute Klausula Ekonomiko Administrazioen Plegu honek, Preskripzio Teknikoen Pleguak, GHKren Kontratazioko Barne Instrukzioek eta, horietan aurreikusten ez den gaitan, zuzenbide pribatuko arauak.

Gainera, SPKLTB eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (aurrerantzean APKLEO) ere aplikatzekoak izango dira Plegu honek espresuki lege-arau horietara bidalketa egiten duen guztietan.

Kontratua, edozein alderditan, ez ezagutzeak edo gauza itundua exekutatzeko aplikagarriak izan daitezkeen bestelako edozein eratako kontratu-dokumentuak ez ezagutzeak, ez du libratuko esleipenduna horiek guztiak betetzeko obligaziotik.

### **3 ENTITATE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO ORGANUA**

Entitate kontratatzailea Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A.U. sozietatea da (aurrerantzean GHK).

Kontratu honetako kontratazio organoa GHK, S.A.U.-ren Administrazio Kontseilua da, GHK SAU-ko eratze eskrituretako estatutuek 23 eta 33 artikuluetan diotenaren arabera, eta, kasua denean, aplikatzekoak diren zuzenbide pribatuko arauen arabera, berariaz eman ahal izango die ahalmena egokitzat jotzen dituen pertsoneri jarduketara konkretuak exekuta ditzaten.

### **4 KONTRATUAREN EPEAK**

Kontratuaren epe nagusia urtebetekoa izango da, eta beste urtebeteko luzapen bat adostu ahal izango da.

Halaber, jarraian aipaturiko epeak bete beharko dira, gehieneko epea urte batekoa izango delarik.

#### **4.1 Kontratuaren epe nagusiak**

Kontratu hau betetzeko epea baldintza honetan aipatutakoa da; horretaz gain, GHKk eta Kantsortzioak egindako itzulpen eskaera bakoitzari erantzunez lizitatzailerak aurkeztutako epeak kontratuaren epe partzialak izango dira. Epe hauek betetzen ez badira plegu honetan aurreikusitako zigor araubidea ezarriko da.



#### **4.2 Kontratuko epeei buruzko beste xedapen batzuk.**

1. Lan Egitarauan zehazten diren epe partzialak, 4.1 klausulan zehazturikoak bereziki, kontratuko epe nagusiak izango dira. Horrenbestez, kontratuaren guztirako epearekin batera, kontratuko betekizun nagusi eta funtsezkoak izango dira. Kontratuko edo proiektuko aldaketak direla eta lanetan zehar sortzen diren epe aldaketak berariaz eta idatziz adostu beharko dira.
2. Aurreko apartatuan finkatutako epeak betetzen ez badira, ez betetze horien erantzukizuna kontratistarena bada Plegu honetako 42. klausulan aurreikusten diren zigorrak aplikatuko dira, SPKLTBren 212. eta 214. artikuluekin bat. Horretaz gain, horrelakorik gertatzen denean GHKk aukera izango du kontratua deuseztatzeko.
3. Kontratua gauzatzeko epea gehienez urte batez luzatzea adostu ahal izango da.
4. Aipatutako epe horiez gain, bete egin beharko da halaber Plegu honetan araututako beste epe oro.

### **5. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA**

#### **5.1 Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua**

1. Kontratu honen lizitazioaren oinarritzko aurrekontua BERROGEITA BEDERATZI MILA EURO (49.000,00 €) izango da kontratuak iraungo duen eperako, urte betez kontratua luzatzeko aukera izanik.

Kopuru honi dagokion BEZa gehitu beharko zaio, sortzapen-garaian aplikatzekoa den legezko tasaren arabera.

2. Urtebeteko gehienezko aurrekontua HOGEITA LAU MILA ETA BOSTEHUN EUROKOA (24.500,00 €) izango da.
3. Urte beteko balizko luzapenaren gehienezko aurrekontua HOGEITA LAU MILA ETA BOSTEHUN EUROKOA (24.500,00 €) izango da.

Kopuru horiei dagokien BEZa gehitu beharko zaie, sortzapen-garaian aplikatzekoa den legezko tasaren arabera.

Kontratuaren prestazio kopurua, kontratuaren gehienezko aurrekontua hitzartutako lizitazio prezioagatik zatitzeak ematen duen zenbatekoa baina txikiagoa izango balitz, kontratistak ez luke eskubiderik izango diferentziagatik zenbatekorik eskatu ahal izateko.

#### **5.2 Kontratuaren prezioa**

Hitzarturiko prezioa 21,40 €koa izango da orrialdeko, BEZ-a sartu gabe. Kontratu honetako **prezioa eta zerbitzuak eskaintzean indarrean izango diren banakako prezioak kontratistaren eskaintza ekonomikotik ateratakoak izango dira.** Edonola ere, kontratuaren prezioa ezingo da izan lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino handiagoa, BEZa sartu gabe. Kopuru hori gainditzen duten proposamenak atzera botako dira.

Kontratu hau kontratistaren arrisku eta menturara exekutatzekoa denez, kontratistak kobratzeko eskubidea izango duen prezioa, edozein kasutan, oroharreko prezio itxi bat izango da, kontratistak egin duen eskaintza ekonomikoan eta Plegu honetan adierazitako baldintzetan ezarritakoaren arabera.

Kontratuaren prezioan sartuta daudela ulertuko da aplikatzekoak diren era guztietako tributu, tasa eta kanon guztiak, eta Plegu honetan eta kontratuaren gainerako dokumentazioan aurreikusitako obligazioak betetzetik kontratistari sor lekitzkiekeen beste gastu guztiak.

Ez da prezioaren berrikuspenik onartuko.

Kontratutik ateratako prezioari BEZ-a gehituko zaio, sortzapen-garaian aplikatzekoa den legezkoa.

## **6 KONTRATU-DOKUMENTUAK ETA KONTRAESANAREN KLAUSULA OROKORRA**

Kontratu-izaera izango dute, eta beraz, alderdiek derrigorrez bete beharko dituzte dokumentu hauek eta dagozkien eranskinak:

1. Baldintza Administratibo Berezien Agiri hau (aurrerantzean, BABP).
2. Ezaugarri Teknikoen Agiria, Baldintza Administratibo Berezien Agiriak xedatzen duenarekin kontraesanean sartzen ez den guztian.
3. Kontratua formalizatzeko dokumentua.
4. Esleipendunak aurkeztutako eskaintza.
5. Agiri honen arabera osatutako Lan Egitaraua.

Esleipendunak dokumentu horiek sinatu beharko ditu, adostasuna adierazteko, kontratua formalizatzeko ekitaldian.

Xedapenetan kontraesanik badago, klausula honetan ageri diren hurrenkeraren arabera interpretatutako dira; era horretan, hurrenkeran aurretik dagoenak izango du lehentasuna atzekoen gainean.

## **7 KONTRATATZAILEAREN PROFILA**

Bere kontratu-jarduerari buruzko informazioaren gardentasuna eta horretarako sarrera publikoa bermatzearen, eta SPKLTBk eskatzen duen kasuetan beste publizitate-bide batzuk erabili ahal izango direla, lizitatzailerak GHKren kontratatzailearen profilerara sarbidea izango dute, interneteko <http://www.ghk.eus> atariaren bidez.

## **8 JURISDIKZIOA**

Jurisdikzio zibilak izango du eskumena kontratuaren lizitazioari, prestatzeari, adjudikatzeari, ondorioei, betetzeari eta azkentzeari buruz alderdien artean sortzen diren auziak ebazteko.

# **II. KAPITULUA: KONTRATUAREN ESLEIPEN PROZEDURA ETA FORMA**

## **9 ESLEITZEKO PROZEDURA ETA FORMA**

Kontratu hau publizitate gabeko prozedura negoziatu bidez esleituko zaio, eskaintza tekniko eta ekonomiko onuragarriena aurkezten duenari. Gonbidapenak, gutxienez, kontratua gauzatzeko gaitasuna duten hiru enpresei bidaliko zaizkie.

## **10 LIZITATZAILEENTZAT ESKURAGARRI DAGOEN DOKUMENTAZIO ETA INFORMAZIOA**

Kontratazio organoak prozedura honi buruzko dokumentazio guztia jarriko du eskuragarri lizitatzailerentzat, zehazki, dokumentu hauek:

- Baldintza Administratibo Berezien Agiria eta horri dagozkion eranskinak.
- Ezaugarri Teknikoen Agiria eta horri dagozkion eranskinak.

GHKren bulegoetan egongo da eskuragarri lizitatzailerentzako dokumentazio hori, Hernaniko Ibaiondo Industrialdeko 27. zenbakian, 3. solairuan. Dokumentazioa euskarri informatikoan emango da, CD/DVD bitartez.

## **11 GAITASUN BALDINTZAK**

1. GHKrekin kontratua egin ahal izango dute pertsona natural edo juridikoek, bai espainiarrek bai atzerritarrek ere, jarduteko gaitasun osoa badute eta kontratatzeko debekurik ez badute.

Ezin izango dute lizitazioetan parte hartu zehaztasun teknikoak edo kontratua prestatzeko agiriak egiten jardun duten enpresek, baldin eta parte-hartze horrek lehia askea muga badezake edo pribilegiozko tratua eragin badezake gainerako enpresa lizitatzailleekiko.

2. Enpresaburuek, halaber, kontratuaren objektu den jarduera edo prestazioa gauzatzeko beharrezkoa den enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute, hala badagokio.

Pertsona juridikoak kontratuaren esleipendunak izango dira, baldin eta kontratuko prestazioak, Estatutu edo fundazio-arauek xedatutakoari jarraiki, sartzen badira pertsona juridikoaren helburu edo jarduera-esparruan.

3. Espainiakoak ez diren Europar Batasuneko enpresek GHKrekin kontratatzeko gaitasuna izango dute, baldin eta enpresak ezarrita dauden estatuko legeen arabera dena delako prestazioa gauzatzeko gaikuntza badute.

Enpresa horien jatorrizko estatueta legediak lurralde horretan zerbitzuak eskaintzeko baimen berezi bat edo erakunde jakin bateko kide izatea eskatzen badu, baldintza hori betetzen dutela frogatu beharko dute lizitatzailleek.

Europar Batasuneko kide ez diren estatueta pertsona fisiko edo juridikoek Espainiako Diplomazia Misio Iraunkorraren txosten baten bitartez egiaztatu beharko dute enpresaren jatorrizko estatuak aukera ematen diela Espainiako enpresei hango administrazioarekin eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 3. artikuluan aipatutako sektore publikoko kideko ente, organismo edo erakundeekin egiten diren kontratazioetan funtsean modu bertsuan parte hartzeko.

4. GHKrekin kontratuak egin ahal izango dituzte asmo horrekin eraturako aldi baterako enpresaburu-elkartek. Aldi Baterako Enpresaburu Elkarteko kideek Plegu honetako 16. klausulan adierazitako kaudimen-baldintzak bete beharko dituzte, eta kide guztiek solidarioki erantzungo dute kontratua betetzeaz, irauten duen denbora guztian. Ez da beharrezkoa izango aldi baterako enpresaburu-elkarteak eskritura publikoan formalizatzea harik eta kontratua adjudikatzen zaien arte, eta SPKLTBko 59. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da. Hala ere, enpresaburu horiek eskaintza aurkezten duten unetik aurrera, GHKren aurrean solidarioki obligatuta geratuko dira lizitazio honetatik eta kontratutik eratortzen diren obligazio guztiak betetzeko kontratua amaitu arte, eta pertsona bat izendatu beharko dute, lizitazioan eta kontratuaren exekuzioan zehar ordezkari edo ahalordedun gisa jardun dezan, kontratua amaitu arte sortzen diren eskubideak egikaritzeko eta obligazioak betetzeko behar adinako ahalordearekin.
5. Lizitazioan parte hartzen duten enpresa guztiek Plegu honekin batera doan **I. Eranskina** aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta.

## 12 PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

### 12.1 Dokumentazioak bete beharrekoak

**Proposamenak aurkezteak esan nahi du lizitatzailerak baldintzarik gabe onartzen dituela Plegu honetako klausulak eta kontratu izaera duten gainerako dokumentuetakoak, inolako salbuespenik gabe.** Lizitatzailerak aurkeztutako edozein dokumentutan ageri den salbuespen ez-ezarritzat joko da edozein kasutan, eta lizitaziorako oinarri gisa erabiltzen den dokumentazioan, hots, kontratazio-organoak emandakoan, zehaztutako baldintzetan egikaritu beharko da kontratua.

Proposamenak Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira, eta informazio guztia paperean inprimatuta eta euskarri informatikoan eman behar da. Bi euskarrietako informazioa bat ez badator, paperean inprimatuta aurkeztutako dokumentazioan ageri dena gailenduko da.

Eskaintzak makinaz idatzita, edo beste modu batean mekanikoki edo informatikoki inprimatuta egongo dira, eta ez da onartuko eskuz idatzitako dokumenturik, ezta eskaintza baloratu ahal izateko baldintzak argi eta garbi ezagutzea eragozten duten hutsak, erroreak edo zuzenketak dituenik ere. Era berean, ez da onartuko APKLEOko 84. artikuluan ezarritako kasuren batean dagoen proposamenik.

Zehazki, eskaintza ekonomikoa Plegu honekin batera ematen den dokumentu informatikoan aurkeztu beharko da, dokumentu horren formatua batere aldatu gabe.

Ez dira onartuko APKLEOko 84. artikuluan ezarritako kasuetan dauden proposamenak, eta, beraz, atzera botako dira aztertu eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozen proposamenak, pleguetan ezarritako eredu funtsean aldatzen dutenak, zenbatekoan errore nabarmena dutenak edo, lizitatzailerak berak aitortuta, eskaintza bideraezin egiten duten akatsak edo funtsik ezak.

Prozeduran aurkezten diren eskaintzak prestatzeko dokumentazioa lantzearen kostu osoa lizitatzaileraren konturakoa izango da, eta ezingo dute inolako konpentsaziorik erreklamatu adjudikazioa ematen ez bazaie.

### 12.2 Eskaintzak aurkezteko lekua eta epea

Lizitazio honetan parte hartzeko, enpresa lizitatzailerak GHKk Hernaniko Ibaiondo Industrialdean, 27. zenbakian eta 3. solairuan dituen bulegoetan aurkeztu beharko dute gutun-azal itxi bat gero zehaztuko den dokumentazioarekin eta **gonbidapenean zehazturiko epearen barruan**, bertan adieraziz proposamena aurkezten duen enpresaren izena, sinatzen duenaren izen-abizenak eta zein titulurekin sinatzen duen, telefono eta fax zenbakiak, eta helbide elektronikoa, guztia argi irakurtzeko moduan.

Dokumentazioa postaz bidaltzen denean, enpresaburuak justifikatu beharko du zein egun eta orduetan egin duen bidalketa Posta bulegoan, eta egun horretan bertan kontratazio-organoari jakitera eman beharko dio eskaintza bidali duela, telex, fax edo telegrama bidez. **Bai**

**dokumentazioa bidaltzea eta bai bidalketa egin dela iragartzea**, iragarkian adierazitako aurkezteko epea amaitzeko **data eta ordua igaro aurretik egin behako dira**.

Eskaintzaren aurkezpena posta elektronikoz ere iragarri ahal izango da, baina kasu horretan, iragarpenaren bidalketa baliozkoa izan dadin, jasota egon beharko du mezua bidali eta jaso dela, bidaltze- eta jasotze-data, komunikazioen eduki osoa eta modu fede-emailean identifikatuta egon beharko dute bidaltzaileak eta hartzaileak. Kasu horretan, kopia inprimatua lortuko da, eta erregistratu eta espedienteari erantsiko zaio.

Bi baldintza horiek betetzen ez badira, proposamena ez da onartua izango, iragarkian zehaztutako epea amaitzeko data eta ordua igaro ondoren jasotzen badu GHK-k. Hala ere, adierazitako datatik hamar (10) egun natural igarotzen badira dokumentazioa jaso gabe, dokumentazio hori inola ere ez da onartuko.

Parte hartzeko eskaera kontratazio-organoak adierazitako bulegoetan aurkezten denean, kontratazio-organoak eskaera hori erregistratuko du eta zigilatutako kopia bat itzuliko dio lizitatzailari, aurkeztu izanaren ordezkagiri gisa. Kopia horretan azalduko dira lizitatzailaren izena, kontratuaren objektuaren izendapena eta proposamena aurkeztu den eguna eta ordua, **II. Eranskinean** aurkeztutako ereduaren arabera.

### **12.3. Eskaintzak aurkezteko modua**

Gutun-azalean inskripzio hau idatzi beharko da: **“Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A.U. eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsultarioari itzulpen zerbitzua emateko kontratazio prozeduran parte hartzeko eskaintza”**. Gutun-azalean dokumentu hauek sartu beharko dira:

#### **a) Enpresariak eta, hala badagokio, bere ordezkariak jarduteko gaitasuna dutela egiaztatzen duten agiriak.**

- Lizitatzaila pertsona juridikoa denean, osaketa-eskritura edo -dokumentua, Estatutuak edo fundazio-egintza aurkeztu beharko dira; bertan agertuko dira bere jardura arautzen duten xedapenak, eta pertsona juridiko motaren arabera dagokion Erregistro Publikoan behar bezala inskribatuta egongo dira.

- Europar Batasuneko estatu kideetako enpresari ez espainiarrak direnean, enpresarien estatuko legeriari jarraituz egokia den lanbide- edo merkataritza-erregistroan inskribatuta daudela egiaztatuta beharko dute, edo zinpeko adierazpen bat edo egiaztatutako agiri bat aurkeztu beharko dute, ezgarriak diren erkidegoko xedapenen arabera.

- Gainerako enpresari atzeritarrek jarduteko gaitasuna dutela egiaztatuta beharko dute enpresak egoitza duen lekuan Espainiak duen Diplomaziako Misio Iraunkorrek edo Kontsultaxeko Bulegoak emandako txostenaren bidez. Txosten horretan aipatu behar da atzerriko enpresa horren estatuak Administrazioarekin, eta esparru publikoko erakunde, organismo edo entitateekin kontratatutako

aukera onartzen diela espainiar enpresei, hau da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 3. artikuluan xedatutako kasuak modu berdintsuan betetzen direla.

- Lizitazaileak bere izenean diharduenean, partaidearen Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia edo kasuan kasuko estatuan horren baliokidea denarena aurkeztu beharko da.

- Beste pertsona baten izenean proposamenak aurkeztu edo sinatzen dituzten pertsonak, Espainiako Nortasun Agiri Nazionalaren kopia aurkeztuko dute, horretarako botere askietsiarekin batera. Enpresa lizitazailea elkarte edo pertsona juridikoa balitz, ahalordeak Merkataritza Erregistroan izena emana agertu beharko du, Merkataritza Erregistroaren Araudiak 94. artikuluan xedatutakoari jarraiki hala eskatzen denean.

- Proposamena sinatzen dutenak aldi baterako enpresa-elkartea (ABEE) eratzeko asmoa duten pertsona fisiko edo juridikoak direnean, dokumentu pribatu bat, bertan adieraziz: lizitazioan batera aurkezteko borondatea; adjudikaziodun gertatuz gero kontratua aurrera eramateko ABEE eratzeko konpromisoa; enpresa bakoitzaren partaidetzaren portzentajea; eta, kontratua amaitu arte, kontratutik eratorritako eskubideak egikaritzeko eta obligazioak betetzeko ahalmena izango duen ordezkari edo ahalordedun bakar baten izendapena. Idazki hori sinatu beharko dute ABEE osatuko duten enpresa guztiek eta baita ahalordedunak ere.

Elkartea osatzen dutenetako bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu plegu honen arabera. Kasu horretan, metatu egingo dira, egoki den moduan, elkartean sartutako ekipo bakoitzak egiaztatutako ezaugarriak, eta ABEEko kide den ekipo bakoitzaren sailkapen indibidualak, plegu honetan eskatzen den kaudimen/sailkapen orokorra egiaztatu ahal izateko, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzekoak (aurrerantzean HAKLEO), 52. artikuluan xedatutakoa eragotzi gabe, ondorio hauetarako erabateko aplikazioa baitu.

Galdatutako dokumentazioa dokumentu originaletan edo kopia konpultsatu gisa aurkeztuko da.

## **b) Berariazko eta ardurapeko adierazpena**

I. Eranskinean jasota dagoen ereduaren araberakoa. Adierazpen horretan deklaratu beharko du **ez duela kontratatzeko debekurik** SPKLTBko 60. artikulua ezarritakoaren arabera, bereziki aipatuz artikulua horretako 1. apartatuko c) letrak dioena, hau da, ez duela zehapen irmorik jaso laneko segurtasun eta osasunaren arloan arau-hauste larria egiteagatik; eta beteta dituela tributuen eta gizarte segurantzaren arloko obligazioak, APKLEO erregelamenduko 13. eta 14. artikuluetan zehazten direnak.

## **c) Kaudimen baldintzak.**

Lizitazaileek kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa frogatu beharko dute kaudimen tekniko eta profesionalaz gain aipatzen den dokumentazioa aurkeztuz jarraian zehazten diren irizpideen arabera.

### **c.1 Kaudimen ekonomikoa eta finantza kaudimena**

- 1) Erregistroan behar bezala erregistratutako txostena, ondorio hauetarako Espainiako Bankuaren Finantza Entitateen Erregistroaren baliokidetzat jotzen den finantza-erakunde batek egindakoa, non zehazten den lizitazaileak edo lizitazaile-taldeak finantza-egoera egokia dutela adierazten den.
- 2) Lizitazailearen negozio-bolumenari buruzko aitortpena, eskuragarri dauden azken hiru ekitaldiei buruzkoa gehienez, betiere enpresa sortu zen dataren edo enpresariak jarduerak abian jarri zituen dataren arabera.

Enpresak finantza kaudimena eta kaudimen ekonomikoa dituela ulertuko da hurrengo **irizpideak** betetzen baditu:

- Finantza-entitateak egindako txostenaren data ezingo da proposamenak aurkezteko epearen amaiera-eguna baino hiru hilabete baina lehenagokoa izan.
  - Negozio-bolumen osoari dagokionez, arestian aipatutako ekitaldi bakoitzeko negozio-zifra kontratuaren lizitaziorako oinarrizko aurrekontuaren (98.000 euro) bikoitza ala handiagoa bada, nahikoa izango dela joko da.
- 3) HIRUREHUN MILA EUROKO (300.000 €) Erantzukizun Zibileko aseguruia izatearen justifikazioa.

Arrazoi justifikaturen batengatik, lizitazaileak edo talde bat osatzen duten lizitazaileetakoren batek ezin baditu aurkeztu eskatzen diren erreferentzia horiek, kontratazio-organoak baimena eman ahal izango dio egoki deritzon beste edozein dokumenturen bidez egiazta dezan kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa.

### **c.2. Kaudimen tekniko eta profesionala**

- 1) Azken bost urtean emandako zerbitzu edo egindako lan nagusien zerrenda, horretan jasoz halaber zenbatekoak, datak, gauzatze lekuak eta zerbitzu eta lanen onuradun publiko edo pribatuak. Eta horretarako, gauzatze onari buruzko ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte, horietan adieraziz halaber zenbatekoak, datak eta gauzatze lekuak.
- 2) Enpresarien eta enpresa-zuzendaritzako langileen titulazio akademiko eta profesionalak.
- 3) Ardurapeko adierazpena, eskaintzan proposatzen diren pertsona eta material aldetiko baliabideak kontratua gauzatzeko erabiltzeko moduan daudela adieraziz bertan.

**d)** Proposamena aurkezten duena Aldi Baterako Enpresa Elkarte bat denean, elkarte osatzen dutenetako bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu. Kasu horretan, metatu egingo dira, egoki den moduan, elkartean sartutako ekipo bakoitzak egiaztatutako ezaugarriak, eta



ABEeko kide den ekipo bakoitzaren sailkapen indibidualak, plegu honetan eskatzen den kaudimen/sailkapen orokorra egiaztatu ahal izateko. Era berean, elkarteko kide guztien legezko ordezkariak sinatutako dokumentu bat aurkeztu beharko da, sinatzen duten enpresaburuen izenekin eta inguruabarrekin. Dokumentu horretan adieraziko dute adjudikaziodun gertatuz gero aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromisoa hartzen dutela, zenbateko partaidetza duen bakoitzak elkartean, eta gainera pertsona bat izendatuko dute kontratua indarrean den bitartean guztien ordezkari izan dadin administrazioaren aurrean.

Sailkapena nahitaezkoa denean, aldi baterako elkartean enpresaburu nazionalak eta Europar Batasuneko Estatu batekoak ez diren atzerritarrak, eta Europar Batasuneko Estatu batekoak diren atzerritarrak daudenean, lehengo bi multzoetakoek sailkapena egiaztatu beharko dute, eta hirugarrenekoek kaudimen ekonomiko eta finantzariora, teknikoa edo profesionala.

e) **Enpresa atzerritarrek** berariazko aitortpena aurkeztu beharko dute edozein arloko epaitegi eta auzitegi espainiarren jurisdikzioa onartuz, kontratutik, modu zuzenean edo zeharkakoan, eratorri daitezken arazoei dagokienez; lizitatuzaileari dagokion jurisdikzio foru atzerritarrari uko egin beharko diote, edozein modutan, plegu honi atxikitzen zaion **III. Eranskinean** jasotako eredia betez. Enpresa atzerritarrek dokumentazioa aurkeztu beharko dute gaztelerara edo euskarara modu ofizialean itzulita.

**f) Lizitatuzaileen erregistroa eta enpresa sailkatuak**

Lizitatuzailea edo lizitatuzaileak Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emanda dagoela frogatzen duen ziurtagiria aurkezten bada, ez da erregistro horretako izen-ematearen dokumentazioa aurkeztu beharko, baldin eta frogagiri hori behar bezala eguneratuta badago.

Ziurtagiri horrekin batera, lizitatuzailearen arduradunaren aitortpen bat ere aurkeztu beharko da, non zehazten den lizitatuzailearen baldintzetan ez dela aldaketarik egon. Lizitatuzailea azkenean esleipendun bada, kontratua formalizatzeko dokumentuan aitortpen hori aurkeztu beharko da berriro, kontratazio-organoak Kontratista Erregistroan kontsulta egin ahal izatea eragotzi gabe.

**g) Eskaintza ekonomikoa.**

**Proposamen ekonomikoa.** Plegu honi erantsitako **IV. Eranskinean** jasotako ereduari egokituia.

Proposamen ekonomikoak GHKri emandako zerbitzuen kostua xehatu beharko du, 4. klausulako lehenengo paragrafoan adierazten denaren arabera, eta inoiz ezingo du Hitzartutako Prezioa gainditi, 21,40 euro orrialdeko.

Aurreko paragrafoan xedatutako muga gainditzen bada, lizitatuzailea lehiaketatik kanpo geratuko da.

**h) Proposamen teknikoa eta baliozko judizio baten arabera baloratu beharreko irizpideak**

Proposamena **MEMORIA** batean definituko da. Memoria horretan justifikatuko da betetzen direla Preskripzio Teknikoen Pleguan definitutako eskakizun guztiak eta puntuazio teknikoa jasoko duten edukiak xehatuko dira.

**13 IZAPIDETZEA ETA NEGOZIAZIO-FASEA**

Lizitatuzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioaren edukia, aurreko 12. klausulan adierazitakoari egokituko zaio, klausula horretan ezarritako adjudikazio-irizpideak baloratu eta puntuatu ahal izateko negoziazio fasean.

GHK-ko pertsonal teknikoak kalifikatuko ditu garaiz eta behar den moduan aurkeztutako dokumentuak eta, zuzentzeko moduko akats edo hutsik antzematen badute, epe bat emango diote lizitatuzaileari, gehienez hiru (3) egunekoak, akats edo huts horiek zuzen ditzan.

Aurkeztutako dokumentazioan antzemandako akats edo hutsak zuzendutakoan, zuzentzen badira, eta eskatzaileen nortasuna eta kaudimena egiaztatutakoan, negoziazio-fasea hasiko da, alderdi ekonomiko eta tekniko hauei buruz: prezioa, garantia-epea, hobekuntzak,...

Kontratua eskaintza onenari esleituko zaio, jarraian adierazten diren irizpide objektiboen arabera:

**1 IRIZPIDEA: PROPOSAMEN TEKNIKOA (10 PUNTU)**

<b>Alderdi teknikoak</b>	<b>Balorazio irizpideak</b>	<b>Puntuazioa</b>
<b>a) Itzultzaileen prestakuntza eta esperientzia</b>	<b>Aurkeztutako itzultzaileen prestakuntza eta esperientzia baloratuko da</b>	<b>5</b>
<b>b) Baliabide teknikoak</b>	<b>Enpresak eskaintzen dituen baliabide teknikoak baloratuko dira.</b>	<b>5</b>

**2. IRIZPIDEA: AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK**

**(90 PUNTU)**

**- ESKAINZTA EKONOMIKOA: 70 PUNTU**

Onartutako proposamenen eskaintza ekonomikoei dagokien puntuazioaren kalkulua eskaintza horietan oinarrituta egingo da, interpolazio lineala aplikatuz P1 puntuak (beherapen maximoa,

puntuazio maximoa) eta P2 puntuak (zeroko beherapena, puntuazio minimoa) definitzen duten zuzenean, puntu horiek mugatzen duten segmentuaren barnean.

Eskaintzetan "prezioa" konparatzeko, soilik prezio garbia (BEZa sartu gabe) hartuko da kontuan.

Aipatutako puntuak honako hauek dira:

P1 - Eskaintza merkeenari dagokiona (beherapen maximoa), berari emango zaion puntuazioarekin, Pmax puntuazio maximoarekin, alegia.

P2 - Lizitazio Tipo Prezioari dagokiona, bosgarren klausulan zehaztutako moduan ulertuta, berari emango zaion puntuazioarekin, puntuazio minimoarekin, hau da, formula honen bitartez kalkulatu den puntuazioarekin:

Lizitazio Tipo Prezioari dagokion gutxieneko puntuazioa

$$P_{min} = P_{max} \times (1 - B_{max} \times 3)$$

(Bmax = Beherapen maximoa)

Beherapen (B) gisa ulertzen da Lizitazio Tipo Prezioaren eta eskaintza ekonomikoaren arteko aldea, Lizitazio Tipo Prezioarekin zatituta.

#### - **ITZULPENEN ENTREGA-EPEA: 20 PUNTU**

Txostenaren Edukia, B atala- PTTak eskainitako epea atalean zehaztutako tauletan eskainitako gehienezko epeak kontuan hartuta, Eskainitako Batez Besteko Epea kalkulatu da.

Eskainitako Batez Besteko Epea kalkulatzeko, haztapen hauek erabiliko dira:

TARTEA		EPE MAXIMOA	% PONDERAZIOA
1 TARTEA	500 hitz arte	4 lanordu	30%
2 TARTEA	1.000 hitz arte	16 lanordu	20%
3 TARTEA	5.000 hitz arte	24 lanordu	5%
4 TARTEA	10.000 hitz arte	40 lanordu	10%
5 TARTEA	20.000 hitz arte	56 lanordu	30%
6 TARTEA	20.000 hitzetik gora	60 lanordu 25.000 hitzeko	5%

Eskainitako Batez Besteko Epea kalkulatzeko, maila bakoitzean Eskainitako Gehienezko Denbora eta adierazitako haztapen-portzentaje biderkatzean lortzen diren emaitzen batura egingo da; hau da:

Eskainitako Batez Besteko Epea = (Eskainitako Epea 1 Tartea \* 0,3 + Eskainitako Epea 2 Tartea \* 0,2 + Eskainitako Epea 3 Tartea \* 0,05+ Eskainitako Epea 4 Tartea \* 0,1+ Eskainitako Epea 5 Tartea \*0,3+ Eskainitako Epea 6 Tartea \* 0,05)

Onartutako proposamenen Entrega Epeari dagokion puntuazioaren kalkulua eskaintza horietan oinarrituta egingo da, interpolazio lineala aplikatuz P1 puntuak (Gutxieneko Eskainitako Batez Besteko Epea, puntuazio maximoa) eta P2 puntuak (Batez Besteko Tipo Epea, puntuazio minimoa) definitzen duten zuzenean, puntu horiek mugatzen duten segmentuaren barnean.

Aipatutako puntuak honako hauek dira:

P1 – Gutxieneko Eskainitako Batez Besteko Epea duen eskaintzari dagokiona (beherapen maximoa), berari emango zaion puntuazioarekin, Pmax puntuazio maximoarekin, alegia.

P2- Batez besteko Tipo Lizitazio Epeari dagokiona (29,4 lanordu), berari emango zaion puntuazioarekin, puntuazio minimoarekin, hau da, formula honen bitartez kalkulatu den puntuazioarekin:

Lizitazio Batez Besteko Tipo Epeari dagokion gutxieneko puntuazioa

$$P_{min} = P_{max} \times (1 - B_{max} \times 3)$$

(Bmax = Beherapen maximoa)

Beherapen (B) gisa ulertzen da Lizitazio Batez Besteko Tipo Epearen eta egindako eskaintzaren arteko aldea, Lizitazio Tipo Prezioarekin zatituta.

Adibide gisa, Lizitaziorako Batez Besteko Tipo Epea lortzeko egin den kalkulua zehazten da jarraian:

TARTEA		EPE MAXIMOA	PONDERAZIO %	Epea * Ponderazio %
1 TARTEA	500 hitz arte	4 lanordu	30%	1,2
2 TARTEA	1.000 hitz arte	16 lanordu	20%	3,2
3 TARTEA	5.000 hitz arte	24 lanordu	5%	1,2
4 TARTEA	10.000 hitz arte	40 lanordu	10%	4
5 TARTEA	20.000 hitz arte	56 lanordu	30%	16,8
6 TARTEA	20.000 hitzetik gora	60 lanordu 25.000 hitzeko	5%	3
			<b>GUZTIRA</b>	<b>29,4</b>

Garrantzitsua: Edozein tartetan Gehienezko Epea gainditzen duten proposamenak ez dira onartuko.

## **14.- ESKAINTZA EZOHIKOA EDO NEURRIZ KANPOKOA**

1. Eskaintza bat ezohikoa edo neurriz kanpokoa dela adieraziko da, baldin eta beraren beherapen portzentajeak % 10 puntu edo gehiagoz gainditzen badu onartutako oinarritzko eskaintza guztien beherapen portzentajeen batez besteko aritmetikoa.
2. Ezohiko edo neurriz kanpoko eskaintzarik jasoko balitz, Kontratazio Mahaiak, horiek ukatu baino lehen, proposamen horiek aurkeztu dituztenei eskatuko die beharrezko argibideak ematea eskaintzaren osaketaren inguruan, eta osaketa hori egiaztatuko du ematen zaizkion argibideak kontuan hartuta. Horretarako, lizitatuzaileek hiru (3) eguneko epea izango dute, argibideak emateko eskaera jasotzen duten egunetik aurrera.

Lizitatuzaileak kontratua egikartzeko eskaini ditzakeen baldintza onuragarriak kontuan hartu ahal izango ditu Kontratazio Mahaiak.

Edonola ere, eskaintza anormalki baxuak eskaintzen badira, dagokion lizitatuzaileak eskaintitako justifikazioaren arabera, GHK-k horiek ukatu ahal izango ditu.

## **15.- KONTRATAZIO MAHAIA**

Kontratazio-organoak izendatutako kidez osatutako Kontratazio Mahaiari ematen zaio Kontratua esleitzeko prozedura izapidetzeko gaitasuna, eta mahai horren osaketa GAOn eta kontratatzailearen profilean dago argitaratuta.

Kontratazio Mahaiak eskaintzak sailkatzen dituen proposamen arrazoitua egingo dio kontratazio-organoari.

## **16.- ESKAINTZAK SAILKATZEA, KONTRATUA ESLEITZEA ETA JAKINARAZTEA**

### **16.1. Eskaintzak sailkatzea**

Aurkeztutako eskaintzak ikusita eta parte-hartzaileekin egin beharreko negoziazioak egindakoan eta burututakoan, kasua bada, GHK-ko Zerbitzu Teknikoek eskaintzei buruzko txostena egingo dute eta Kontratazio Mahaiari helaraziko diote.

Kontratazio Mahaiak, proposamena egin aurretik, behar dituen txosten tekniko eta juridikoak eskatu ahal izango ditu kontratazio-organoari formulatzeko eskaintza-sailkapena egiteko.

Kontratazio-organoak beheranzko ordenan sailkatuko ditu aurkeztutako eta neurrigabe edo anormaltzat jo ez diren proposamenak, horrela aurreikusi bada preskripzio teknikoaren pleguan.

Sailkapen hori egiteko, pleguan edo iragarkian adierazitako adjudikazio-irizpideak izango ditu kontuan, eta horretarako egoki deritzen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu.

**Kontratazio organoak, ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintza aurkeztu duen lizitatzaileri, eskatuko dio aurkez dezala, errekerimendua jasotzen duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita hamar (10) laneguneko epean, Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak**, edo kontratazio organoa ahduntzea hori egiaztatzeko agiriak zuzenean eskura ditzan, kontratuan 64.2 artikulua arabera aipatzen diren baliabideak izan ditzala eta beharrezkoa den behin betiko bermea, esleipen prezioaren % 5koa eginda eduki dezala. Ziurtagiriak euskarri elektronikoa, informatikoa edo telematiko bidez lor daitezke, pleguetan kontraktorik jartzen ez bada. **Halaber, epe horretan aurkeztu beharko da Plegu Administratiboetako 17. klausulan aipatu dokumentazioa.**

## 16.2. Esleipena

**Kontratazio organoak kontratua esleitu beharko du, dokumentazioa jaso eta hurrengo bost (5) egun baldidunen barruan.** Negoziazio prozeduratan, esleipenean konkretatuko dira kontratuaren baldintza zehatzak.

Lizitazioa ezingo da adjudikatu gabe utzi, pleguko irizpideen arabera onargarri den eskaintza edo proposiziorik aurkeztu bada.

Kontratuaren esleipena, betiere esleipen arrazoitua izango da, hautagai edo lizitatzaileri jakinaraziko zaie; aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

## 16.3. Esleipena jakinaraztea

Jakinazpenak, kasu guztietan, behar adinako informazioa eman behar du; zehazki, puntu hauek adieraziko ditu:

- a) Baztertutako hautagaiei buruz, baztertu izanaren arrazoiak azalpen laburtua.
- b) Adjudikazio-prozeduratik baztertu diren lizitatzaileri dagokienez, horien eskaintza onartu ez izanaren arrazoiak azalpen laburtua.
- c) Kasu guztietan, adjudikaziodunaren izena eta hautatu den eskaintzaren ezaugarriak eta abantailak, onartutako gainerako lizitatzaileri aurkeztu dituzten eskaintzen aldean lehentasuna emateko erabakigarri izan direnak.

Adjudikazioaren arrazoiei konfidentzialtasun-salbuespena aplikatuko zaie, SPKLTBko 153. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Jakinarazpena egiteko, hartzaileak jaso izana agerian utz dezakeen edozein bide erabil daiteke. Zehazki, lizitatzailleek eskaintza aurkezterakoan Plegu honen V. Eranskinean adierazitako helbide elektronikoaren bidez egin daiteke, 2007ko ekainaren 22ko 11/2007 Legeak, herritarrak zerbitzu publikoetara bide elektronikoz sartzeari buruzkoak, 28. artikuluan xedatutakoaren arabera. Hala ere, jakinarazpena errefusatzat —azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.4 artikuluan aurreikusitako ondorioekin— jotzeko epea bost (5) egunekoa izango da.

## **17.- ESLEIPENDUNARI ESKATURIKO DOKUMENTAZIOA**

Aurreko klausulan adierazitakoekin batera, plegu honetan zehaztutako aseguru-polizaren ordainagiri eguneratuaren kopia kautoa aurkeztu beharko du esleipendunak.

Kasua denean, ABEE legez eratu izana egiaztatzeko agiria.

Halaber, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan altan dagoela frogatu beharko du, kontratuaren objektua den jarduerari dagokion epigrafean, altaren ziurtagiria aurkeztuz ekitaldikoa bada, edo gainontzeko kasuetan Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren erreziboa aurkeztuz. Edozein kasutan, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren matrikulan ez duela baja eman deklaratzeko ardurapeko adierazpena ere aurkeztu beharko da.

Klausula honetan aipatu dokumentazioa aurkezteko epea, hamar (10) egun baliodunekoa izango da, aurreko klausulan aipatzen den eskaera jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

## **18.- BEHIN BETIKO BERMEA**

Kontratuko betebeharrak beteko direla bermatzearen, sailkapenean lehenengo postuan geratu den kontratuko esleipendunak behin betiko berme bat eratu beharko du, kontratazio organoaren alde, **esleipen zenbatekoaren % 5ekoaz**, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpo.

- Bermea SPKLTBren 96. artikuluan ezarritako moduetako edozeinetan eratu ahal izango da eta Administrazio Kontratuen Erregelamenduko 55. artikuluan zein hurrengoetan xedatutakoaren arabera, prezio atxikipena izan ezik.
- Kontratuko betekizunak ez betetzeagatik esleipendunari zigorrik ezartzen bazaio, kontratazio organoak bermearen aurka modu librean jo ahal izango du, eta eskubide hori ez da etengo lizitatzailleak jar ditzakeen erreklamazio edo errekurtsioak bideratzeko prozesuan.
- Esleipendunak kontratuko betebeharren bat betetzen ez badu, eta ezarritako bermea exekututzen bada, hamabost (15) egun naturaleko epea izango du, bermea exekututzen den datatik aurrera, bermea berrezarri edo dagokion zenbatekoan zabaltzeko.
- Bermeak indargabetu, birdoitu eta itzultzeko erregimenari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuak, Administrazio Kontratuen

Erregelamenduak eta indarrean dagoen erkidegoko araudiak xedatutakoa izango da aplikagarria.

- Behin betiko bermea atxikirik geratuko da, obraren berme epea amaitzen den arte.
- Klausula honetan aipatzen diren xedapenetako edozein betetzen ez bada, kontratua GHKren alde indargabetuko da, baldin eta ez betetzea kontratistari egozteko modukoa bada.

## **19.- KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA**

Kontratua osatuta geratuko da sinatzen denean.

Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da, **bost (5) egun balioduneko epean, esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatuta**, SPKLTBko 151.4 artikuluan.

1.- Kontratua formalizatzeko dokumentuak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuko 26. artikuluan xedatutako baldintzak bete beharko ditu, baita Administrazio Kontratuen Erregelamenduko 71. artikuluan xedatutakoa ere.

2.- Kontratua sinatzen denean, Baldintza Agiri honetako 6. klausulan xedatutako dokumentuak sinatu beharko ditu esleipendunak, aipatutako kontratuari eranskin gisa atxikiko zaizkionak, Administrazio Kontratuen Erregelamenduko 71. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.- Esleipendunak eskatzen badu, berak ordainduta, kontratua eskritura publikoan formalizatzea, eskrituraren kopia soila eman beharko dio kontratazio-organoari.

Esleipendunari egozteko arrazoiengatik, kontratua ezin bada formalizatu aurreko apartatuan aurreikusitako epean, SPKLTBko 156. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

## **20.- DOKUMENTAZIOAREN ZAINZTA**

Behin kontratua esleitu eta gero, eta errekursoak ezartzeko epea betetzen denean inolako errekurtsorik jarri gabe, proposamenekin batera doazen agiri guztiak interesdunen eskura geratuko dira. Dokumentazioa jasotzeko eskaera idatziz egin beharko da. Hurrengo hiru hilabetetan interesdunek beren dokumentazioa jasotzen ez badute, kontratazio organoak ez du hori zaintzen jarraitzeko obligaziorik izango, behin-behineko bermea justifikatzen duten dokumentuak izan ezik, horiek interesdunei itzultzeko gordeko baitira.



### **III. KAPITULUA: ALDERDIEN ESKUBIDE ETA** **BETEBEHARRAK**

#### **21.- KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK**

Kontratua exekutatzean, kontratistak Baldintza Agirian aitortzen diren eskubideak izango ditu, eta bereziki, jarraian aipatzen direnak:

##### **21.1. Ordaina jasotzeko eskubidea.**

Kontratistak, Agiri honetan zein kontratuaren gainerako dokumentuetan hitzartutako prezioei eta baldintzei jarraiki, kontratua burutzeari dagokion kontraprestazioa jasotzeko eskubidea izango du, bere arrisku eta menturara, kontratuko xede diren obren artean egiaz egindakoengatik, betiere horietan baimendu daitezkeen aldaketekin.

Kontratistaren arrisku eta benturak esan nahi du kontratistak, bere ezagutza eta eskarmentu profesionalaren arabera, kontratua egikaritzeko beharrezko dedikazioa ebaluatu duela, baita eman beharrezko zerbitzuen kostu osoa ere. Hori dela-eta, uko egiten dio bere eskaintzan zehaztutakoa ez den beste kontraprestazio bat jasotzeari, kontratatutako zerbitzuen balio handiago edo apalagoaren enpresa-arriskua bere gain hartuz. Halaber, GHK-k eskaintzan zehaztutako kontraprestazio osoa ordaintzeko obligazioa du.

Esleipenarena baino balio handiagoak bakarrik onartuko dira, baldin eta GHK-k, berariaz, idatziz eta egikaritu baino lehen baimendu baditu aldaketak lizitazio honetan aurreikusitako asistentziaren inguruan, eta betiere, GHK-k berariaz, idatziz eta aldeztatik emandako aldaketetarako baimendutako berariazko balioarekin. Baimendutako eta baloratu gabeko aldaketek ez diote eskubiderik ematen kontratistari bere kontraprestazioaren balioan aldaketarik egiteko.

Ziurtagiri partzialen edo konturako ordainketen kasuan, GHK-k horiek ordaindu beharko ditu, baldin eta bakarrik edo aurrekoekin batera, esleipenaren prezioa gainditzen badute.

##### **21.2.- Kontratua lagatzea**

1. Debekatuta dago esleipendunak kontratuaren eskubideak eta beharkizunak beste norbaiti lagatzea, baldin eta kontratazio organoak, aldeztatik, berariaz eta idatziz, horretarako baimenik ematen ez badu. Hala ere, kontratua esleitzeko orduan lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak erabakigarriak izan badira, kontratazio organoak hori ezeztatu ahal izango du.
2. Aurrekoa eragotzi gabe, kontratuaren lagapena baimentzeko funtsezko baldintza izango da kontratuaren prezioaren ehuneko hogei exekutatuta edukitzea, gutxienez; eta lizitatzailerik Agiri honetan bete behar dituzten gaitasun- eta kaudimen-baldintza berdinak betetzea lagapen-hartzaileak.

3. Eskritura publikoa baimendu eta formalizatu ondoren, lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatuko da lagapen-hartzaileak.

### **21.3.- Azpikontratazioa**

1. Azpikontratuak egiteko, baldintza hauek bete behar dira:
  - a. Egin beharreko prestazio zehatzari dagokionez, azpikontratistek kontratu hau egikaritzeko Administrazioarekin kontratatze gaitasun eta sailkapen-baldintzak, baldintza agiri honetan zehaztutakoak, betetzea.
  - b. GHK-k prestazioa azpikontratatze baimena ematea kontratistari berariaz eta idatziz, betiere azpikontratatzailearen egokitasuna egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu baino lehen.
  - c. Aldez aurretik eta idatziz, kontratistak GHKri jakinaraztea zein azpikontratu egin nahi duen, azpikontratatze kontratuaren zein atal beteko duen eta kontratista hori nor den zehaztuz, baita dagokion prestazioa egiteko egokia dela justifikatuz ere. Lanak hasteko data baino 20 egun lehenago egin behar da jakinarazpen hori. Epe horretan, GHK-k berariazko baimena eman behar du azpikontratazio hori egiteko.

Egin nahi diren azpikontratuak ez badute eskaintzan xedatutakoa betetzen, bai bertan azaltzen diren prestazio-atalak ez badira kontratuan xedatutakoak, bai kontratuan xedatutakoak ez diren enpresariak egiten badituzte, edo hala badagokio, ez badira eskaintzan xedatutako profil profesionalaren arabera, azpikontratu ezingo da sinatu 20 egun igaro arte gaitasunari eta kaudimenari buruzko justifikazioak aurkezteko jakinarazpena bidaltzen den egunetik aurrera zenbatuta, betiere GHK-k epe horren barruan ez badu jakinarazi horien aurka dagoela.

- d. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuan azpikontratazioari buruzko baldintzak betetzea.
2. Kontratistak esleipen-zenbatekoaren %30 arte azpikontratu ahal izango du. Azpikontratazioa baimentzeko eskaera egiten den momentuan, baldintza hori betetzen dela justifikatuko da. Kontratistak behar bezala identifikatu behar du kontratuko zein prestazio dauden azpikontratazioak, eta zein prestaziotan egiten den baliabideen atxikipena soilik.
3. Arestian aipatutako baldintza guztiak beteta, kontratu honetako prestazioen bat azpikontratatuko balitz, azpikontratatze kontratista nagusiaren aldera izango dituzte betebeharrak, azken horrek hartuko baitu bere gain zerbitzuen egikaritzaren ardura kontratazio-organismoaren aurrean. Hala ere, Baldintza Agiri honetan indargabetze-arrazoitzat jotzen den ez-betetzeak egiten dituzten azpikontratatze kontratistak ordezteko obligazioa bere gain hartzen du kontratistak.

#### **21.4.- Ezinbesteko kasua**

1. Kontratu hau oro har arautu behar duen arrisku eta mentura printzipioa eragotzi gabe, ezinbesteko kasuetan, eta kontratistaren aldetik betiere zuhurtzarik gabeko jardunik ez badago, sortu zaizkion kalte eta galeren kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izango du.
2. Kontratu honen ondorioetarako, ezinbesteko kasutzat joko dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 231. artikuluan hala sailkatutako egoerak.

Agiri honetan aitortutako eskubideez gain, aplikagarria den araudiak xedatutako beste edozein eskubide edukiko ditu kontratistak.

### **22.- KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK**

Kontratistaren betebeharrak nagusitzat joko dira jarraian ageri direnak:

#### **22.1. Lan Egitaraua osatzea**

Kontratistak Lan Egitaraua osatu beharko du, Agiri honetako 26. klausulan zein kontratuaren gainerako dokumentuetan aipatutako epe, ezaugarri eta edukiak betez. GHKk onartu ondoren, Lan Egitaraua bi alderdiek formalizatutako kontratuari atxikiko zaio, eranskin gisa.

Kontratistak bere gain hartzen ditu kontratu honen idazketan egon daitezkeen akatsen ondorioz emandako zerbitzuetan gerta daitezkeen akatsek sor ditzaketen arriskuak, eta ez du inolako salbuespen edo eskubiderik emango GHKk Lan Egitaraua edo haren aldaketak aztertu edo onartu izanak, baldin eta GHKren zuzeneko aginduak ez badira.

#### **22.2. Zerbitzuak egikaritzea.**

1. Kontratistak behar bezalako kontu eta arretarekin egin beharko ditu zerbitzuak, hitzartutako burutze-epeak betez, eta kontratuaren dokumentazioan zein Lan Egitarauan zehaztutako xedapenak, baita GHK-k kontratuaren interpretazio teknikoan egitean eman ditzakeen argibideak ere, modu zorrotzean betez.
2. Zerbitzuak eskaintzeko, eskaintzan proposatutako elementu pertsonalak eta materialak eduki beharko ditu gutxienez kontratistak. Aurreko betebeharrak ez du kontratista salbuesten beharrezkoak diren zerbitzuak bere kargura aurreikustetik, kontratuaren baldintza eta epeak betetzeko erantzun ahal izateko, betiere eskatutako kalitate-mailara egokituz.

### **22.3. Baimen, lizentzia eta baimentzeak**

1. Kontratatik, bere kontura eta kargura, araudi sektorial aplikagarriaren arabera, edozein organismo publiko edo pribatuk eskatzen dituen baimenak, lizentziak eta gainerako baldintza administratiboak eskatu eta eskuratu beharko ditu, era horretan, bere zerbitzuak modu egokian eta erabat eman ahal izateko. Horretarako, unean-unean beharrezkotzat jotzen duen dokumentazioa eskatuko dio GHKri.
2. Kontratatik eskatzen dituen baimen, lizentzia eta gainerako baldintza administratiboen berri eman beharko dio kontratazio-organoari, eta horiek zein izapide-egoeratan dauden eta eskuratu ote diren ere jakinarazi beharko dio, eskatzen zaion dokumentazioaren kopiak emanez.

### **22.4 Arrisku eta mentura**

Kontratataren arriskuz eta menturaz garatzen da kontratu hau; hots, kontratatik zehazki hartzen ditu bere gain kontratua exekutatzean sor daitezkeen era guztietako arrisku eta erantzukizunak (teknikoak, ekonomikoak eta abar), Agiri honetan aurreikusitako baldintza eta salbuespenekin.

Zehazki, kontratatik bere gain hartuko ditu obrak egitean sortzen zaizkion aurreikusitakoak baino kostu handiagoak, baita obra atzeratzean edo oker gauzatzean GHKri sor dakizkioken kalteak ere.

### **22.5 Kalteak**

Lanak dirauten bitartean, kontratatik erantzungo du bere zerbitzura dauden langileen egintza, ez egite edo utzikeriaren ondorioz, edo obren antolaketa, babes edo seinaleztapen eskasaren ondorioz, edozein pertsonak, jabetzak edo zerbitzuek –publiko edo pribatua izan– jasan ditzakeen kalte eta galeren aurrean. Hala, berak ez beste inork hartuko ditu bere gain horien ondorioz sor daitezkeen erantzukizun eta kalte-ordain guztiak.

Zehazki, kontratua exekutatzean sortzen dituen kalte guztiengatik kalte-ordainak ordainduko ditu kontratatik, baldin eta berari egozteko modukoak badira, GHKren agindua betetzeagatik berehalako ondorio zuzenek sortutakoak direnean izan ezik, hain zuzen Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 214. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

### **22.6 Aseguru polizak**

Kontratua gauzatzeko lanek dirauten bitartean, indarrean dagoen araudiak xedatutakoari jarraiki derrigorrean sinatu behar dituen aseguru-polizak kontratatuta eta indarrean eduki behar ditu kontratatik, Agiri honek dioenarekin bat, eta aseguru horien primen ordainketan egunean egon beharko du.

## **22.7 Araudia betetzea**

Kontratatik obligazioa hartzen du, GHKren aurrean, unean-unean indarrean dagoen legedia betetzeko.

Bereziki, kontratua betetzeko administrazio, ingurumen, teknika, segurtasun, zerga eta lan esparruetan eskatzen zaizkion betekizun guztiak bete beharko ditu kontratatik.

Halaber, lan eta gizarte esparruko arau guztiak bete beharko ditu kontratatik (baita obrak egin bitartean ematen direnak ere), bereziki Gizarte Segurantzari eta laneko segurtasunari eta osasunari buruzkoak, baita kontratu honen xede diren eraikuntza lanetan zerbitzuak emango dituzten langileen lan arriskuen prebentzioari buruzkoak ere. Zernahi gisaz, GHKk segurtasun eta osasunaren esparruan zehazten duen kontrol eta zaintzapean egongo da kontratista.

## **22.8 Publizitatea**

Kontratatik ezin izango du kontratu honen xede diren obrei buruzko albiste, erreportaje, marrazki ez argazkirik argitaratu, ezta hirugarrenak baimendu ere horrelakoak argitara ditzaten, GHKren idatzizko baimenik ez badu. Kontratatik obrei buruzko argazki erreportajeak, ikus-entzunezkoak edo beste edozein motatakoak egin, editatu, proiektatu edo ustiatu nahi baditu, bai zuzenean bai hirugarren batzuekiko akordioen bidez, GHKren baimena beharko du era berean.

## **22.9 Bestelako betebeharrak**

1. Kontratatik GHKrekin lankidetzan jardun beharko du, kontratua burutzea finantzatzeko orduan, finantza-entitateek eskatu dezaketen informazioa guztia emateko (azpikontratisten urteko kontuak, kaudimena eta abar).

## **23.- KONTRATISTAREN KONTURAKO GASTUAK**

Kontratatik bere gain hartu beharko ditu obra kontratu hau behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren gastu guztiak; eta bereziki, segidan aipatuko direnak:

- 1) Agiri honetan eta kontratuaren gainerako dokumentu aplikagarrietan xedatutakoari jarraiki, lortu behar diren baimenak, ziurtagiriak, egiaztapenak, legalizazioak, dokumentuak edo erakunde publiko zein pribatuetako beste edozein informazio edo dokumentazio lortzeko gastuak.
- 2) Kontratuaren dokumentuan xedatutakoari jarraiki, derrigorrez aurkeztu beharreko dokumentazioa osatu eta garatzeko gastuak, edota kontratuaren xedeak betetzeko beharrezkoak direnak, baita kontratua egiaztatzeko sortzen direnak ere.

- 3) ABEE esleipenduna sortu eta erregistratzeko gastuak, haren estatutuak aldatu eta erregistratzekoak, eta jarduera horien ondorioz sortzen diren gainerako gastuak.
- 4) Materialak eta ekipoak, bai zuzenean bai hirugarrenekin sinatutako kontratuen bitartez, garraiatu edo hornitzeko egindako gastuak, baita kontratuko prestazioa amaitzen denean horiek erretiratzeko gastuak ere.
- 5) Derrigorrez sinatu behar diren aseguru guztien primak dagokionean ordainduta egon beharko dira.
- 6) Kontratuaren ondorioz, edo hura gauzatzearen ondorioz, indarrean dauden xedapenek aginduta aplikagarriak diren zerga, eskubide, tasa, konpentsazio, karga eta ordainarazpen guztiak.
- 7) Langileen kostuak, horien soldatak, osagarriak, prestakuntza-gastuak, laneko segurtasunekoak, sarbide kontrolekoak eta obra egiteko eska daitezkeen edo egokiak diren beste edozein gastu.
- 8) Kontratua behar bezala eta erabat exekutatzeko beharrezkoa den beste edozein gastu.

## **24.- KONTRATAZIO ORGANOAREN ESKUBIDEAK (GHKREN ADMINISTRAZIO KONTSEILUA)**

Agiri honetan eta kontratuko gainerako dokumentazioan eta aplikagarria den araudian aipatutako muga barruan, eta bertan adierazitako baldintzei eta ondorioei lotuta, GHKk jarraian azaltzen diren eskubideak izango ditu.

Zernahi gisaz, kontratuaren xedearen burutzea ez eten eta bere jarraipena bermatzeko beharrezko neurri guztiak hartu ahal izango ditu GHKk, bereziki kontratistak hitzartutakoa betetzen ez duen kasuetarako. Horrelakoetan, GHKk eskubidea izango du sortzen diren gastu eta kostuak kontratistari ordainarazteko, eta beharrezkoa bada, edozein kontzepturengatik kontratistari zorduntzen dizkion zenbatekoekin gastu horiek konpentsatzeko. Hori guztia Agiri honetan kontratua indargabetzeari buruz xedatutakoa eragotzi gabe.

### **24.1 Kontratua aldatzea.**

GHKk kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik, SPKLTBaren 107. Artikuluan jasotako inguruabarrak ematen direnean, eta beti ere lizitazio eta esleipenaren oinarritzko baldintzak aldatzen ez badira.

Balitzko aldaketa horiek derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat.

Kontratuaren aldaketa idatziz formalizatu beharko da, SPKLTBaren 107. artikulua jasotzen duen moduan

## **24.2 Ikuskapena, zaintza eta kontrola**

1. GHKk ikuskapen, zaintza eta kontrol funtzioak beteko ditu, kontratistak Agiri honetan xedatutako baldintzetan kontratuko betebeharrak betetzen dituela bermatzeko.
2. GHKk eskubidea du edozein momentutan beharrezko ikuskapen, auditoria eta kontrolak egiteko, baita bere ustez egokiak diren bestelako edozein jarraipen jarduera egiteko ere. Jarduera horiek guztiak GHKren zerbitzuek egingo dituzte, edo bestela, horretarako kontratatutako hirugarrenek.
3. Kontratistak jarraipena, ikuskaritzak, auditoriak eta, oro har, GHKren ikuskatze eginkizunak ahalbidetuko ditu y de su AT.
4. GHKk ikuskapena eta jarraipena egiteko izendatzen d(it)uen pertsona(e)k funtzio hauek beteko ditu(zte):
  - Kontratistak bere betebeharrak modu egokian betetzen dituela ikuskatu, kontrolatu eta bermatzea.
  - Kontratistari beharrezko informazioa eskatzea, administrazio, finantza eta kontabilitate esparruetakoa barne.
  - Kontratuaren garapenean gertatzen diren gorabeheren berri ematea GHKri, eta horri buruzko txostenak idaztea.

## **24.3 Zigorrak**

Kontratistak betekizunen bat betetzen ez badu, kontratazio organoak dagokion zigorra ezarriko dio, Agiri honetako VII. Kapituluan xedatutakoari jarraiki.

## **24.4 Kontratua indargabetzea**

Kontratazio organoak erabaki dezake obra kontratua indargabetzea, baldin eta Agiri honetako VIII. Kapituluan xedatzen diren kasu eta baldintzak gertatzen badira.

## **24.5 Kreditu-eskubideen lagapena**

Kontratazio-organok kontratistaren aurrean izan ditzakeen kreditu-eskubideetako edozein finantza-entitateei laga edo pignoratu ahal izango die.

#### **24.6 Araudi aplikagarrian aitortutako eskubideak**

Agiri honetan eta kontratuaren gainerako dokumentuetan aitortutako eskubideez gain, araudi aplikagarriaren arabera aitortzen den beste edozein eskubide izango du GHKk.

### **25.- KONTRATAZIO ORGANUAREN BETEBEHARRAK**

Agiri honek eta indarrean dagoen araudiak aitortzen dituen betebeharrak eragotzi gabe, kontratazio organoaren betekizun izango dira jarraian ageri diren betebeharrak:

#### **25.1 Kontratistari kontraprestazioa ordaintzea**

GHKk zerbitzuak emateagatiko kontraprestazioa derrigorrean ordaindu behar dio kontratistari, Agiri honetan, Ezaugarri Teknikoen Agirian eta kontratuaren gainerako dokumentu aplikagarrietan xedatutako modu eta baldintzetan.

#### **25.2 Bestelako betebeharrak**

Agiri honek, kontratuaren gainerako dokumentazioak eta indarrean dagoen araudiak xedatutako beste edozein obligazio beteko du GHKk.

## **IV. KAPITULUA: KONTRATUA GAUZATZEAREN GARAPENA ETA JARRAIPENA**

### **26.- LAN EGITARAUA.**

1. Kontratistak zehaztu egin beharko du bere eskaintzan aurkeztutako zerbitzuen plangintza. Horretarako, **Lan Egitaraua aurkeztu beharko dio GHKri, kontratua formalizatzen denetik kontatzen hasita gehienez hamar (10) egun naturaleko epean.**
2. GHKk Lan Egitaraua onartu beharko du, aurkeztu eta biharamunetik gehienez hamar (10) eguneko epean. Hala dagokionean, sartu beharreko aldaketak eta preskripzioak ere onartu beharko ditu, baldin eta kontratuaren edukiaren kontrakoak ez badira.
3. Kontratistak aurkeztu duen Lan Egitaraua ez bazaie Ezaugarri Teknikoen Agiriari eta kontratuko beste agiriei egokitzen, edo aldaketak sartu behar badira, GHKk kontratistari eskatuko dio bost (5) eguneko epean akatsak konpondu eta GHKk egoki deritzon preskripzioak sar ditzan aurkeztutako Lan Egitarauan, baldin eta kontratuaren klausulen kontrakoak ez badira. Kasu honetan, GHKk bost (5) eguneko beste epe bat izango du, aurkezpenetik kontatzen hasita, Lan Egitaraua ikuskatzeko eta onartzeko.



4. GHKk onartu ondoren, Lan Egitaraua bi alderdiek formalizatutako kontratuari atxikiko zaio, eranskin gisa.
5. Lan Egitarauak zerbitzuak garatzeko beharrezko lanen egitarau oso, zehatz eta arrazoitua jaso beharko du.

Lan-baldintzak aldatzen badira lan egitaraua kontratistaren aldetik eguneratu beharko da, eta beharrezkoa izanez gero, kontratua finkatu eta eguneratu.

## **27.- LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA**

Obren kontratista esleipendunak laneko Segurtasun eta Osasun Plan bat bermatu beharko du, GHK-ren aurrean.

Enpresak kontratuaren parteren bat azpikontratitzen badu, azpikontratei exijitu beharko dizkie aipatutako obligazio horiei buruzko frogagiriak, eta ondoren GHKren prebentzio zerbitzuari eman.

Lanak ezin izango dira abiatu GHKren prebentzio zerbitzuak baimenik eman gabe, betiere adierazitako dokumentazioa egiaztatu ondoren.

Lanean ari direla langileei istripu edo beste edozein motatako kalteren bat gertatuz gero, bere erantzukizuna izango da indarrean dauden arauetan xedatutakoa betetzea. GHK ez da inolaz ere erantzukizun horren mende egongo.

## **28.- ZERBITZUEN ZUZENDARITZA**

Kontratistak GHKk onartutako Zerbitzuen eta Lan Egitarauaren arabera egingo ditu lanak, eta kontratuko agirien interpretazio teknikoaren ildotik Zerbitzuen Zuzendaritzak idatziz ematen dizkion argibideei jarraiki; hauek, izan ere, derrigorrean bete beharko ditu kontratistak.

## **29.- KONTRATISTAREN ORDEZKARIA**

### **29.1 Izendapena**

Obrak hasi aurretik, kontratistak berariaz izendatu beharko du, GHKren aurrean, obrako ordezkaria, hain zuzen bere eskaintzan aurreikusiarekin bat, baldintza teknikoan pleguetan zehaztutako betebeharrak onartu beharko dituena. Kargu horretan, kontratuaren xede den zerbitzuen antzekoak zuzentzen gutxienez bost (5) urteko esperientzia duen pertsona bat arituko da. Kontratazio organoak onartu egin beharko du pertsona izendatua.

## 29.2 Zereginak

Kontratataren obrako ordezkariaren oinarrizko zereginak dira:

- Kontratataren ordezkaria izatea kontratuaren betebeharretan, kontratu honen xede diren zerbitzuak emateari dagokionez.
- Obren burutzapena antolatzea eta GHK-tik jasotzen dituen aginduak interpretatu eta gauzatzea.
- GHK-rekin elkarlanean aritzea, obrak egin bitartean sortzen diren arazoak konpontzeko unean.
- Sor daitezkeen atzerapenei aurre hartzea, eta zuzenketa edo prebentzio neurriak proposatzea, besteak beste.
- Kontratuaren xede diren zerbitzuak emateko giza baliabideak eta bitarteko materialak antolatzea.
- Zerbitzuak optimizatzea.

## 30.- ZERBITZUAK EMATEKO ERREGIMENA

1. Kontratatistak zerbitzuak emango ditu kontratuaren dokumentuetan ezarritako xedapenak orpo orpo jarraituta, praktika onetan eskatu beharreko arreta erabiliz beti, eta GHK-k ematen dizkion jarraibideak aintzat hartuta.
2. Gauzatze lanetan, osorik bete eta errespetatu beharko dira aplikagarri diren arau tekniko guztiak. Kontratista behartuta dago une bakoitzeko legeria betetzera, eta, berariaz, lan osasunaren eta segurtasunaren esparruan, eta ingurumen alorrean diren araudiak betetzera.

Arau horiek ez betetzeagatik agintari eskumendunek zigorrik ezarri gero, kontratatistak bere gain hartu beharko ditu, eta GHKk ziurtagirien ordainketak eten ditzake haiek ordainduak izan direla egiaztatu arte, etete horrek kontratatistaren aldeko interesik sortu gabe.

3. Ordezkariak edo kontratatistak ezin izango dute inolaz ere aldakuntzarik ezarri eman beharreko zerbitzuetan, horiek aldeztu aurretik onartuak izan ez badira.

### **31.- KONTRATISTAREN BITARTEKO MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK**

Kontratistak teknikoki eta objektiboki beharrezko eta egokitzat jotzen dituen bitarteko materialak eta giza baliabideak xedatu behar ditu zerbitzuak ematera, lana eskainitako epearen barruan eta eskaintzak ezarritako kalitate baldintzetan bukatu ahal izateko.

Zerbitzuak eman ahal izateko bitarteko materialak eta giza baliabideak xedatzea izango da kontratuaren funtsezko beharkizun bat. Hori ez betetzea kontratua indargabetzeko arrazoia izango da.

### **32.- ARRISKUA ETA MENTURA ZERBITZUAK EMATEAN**

Zerbitzuak kontratistaren arrisku eta menturaz emango dira.

Zerbitzuak gauzaterakoan kontratistaren ardurapeko berandutzerik gertatzen bada, Agiri honetako klausuletan ezartzen diren zigor eta indargabetze araubideen arabera jokatu da.

### **33.- KONTRATUAREN XEDE DIREN ZERBITZUAK EGIN BITARTEAN DESADOSTASUNAK ERABAKITZEA**

1. Kontratistari ordainketak egitea onartzeko ikuskapenak eta kontrolak egiterakoan, GHK-k ikusten badu zerbitzuak ez direla ematen ari kontratuaren dokumentu guztietan xedatutakoaren arabera, espediente bat zabalduko da egoeraren berri jasotzeko, desadostasuna sortu duen zerbitzua edo zerbitzuak eta horren edo horien arduraduna identifikatzeko, eta desadostasun hori ixten den bitartean egiten diren urrats guztien jarraipena egiteko.
2. Espedientea zabaldu ondoren, kontratistaren ordezkariari aurrez entzunik, GHK-k erabakiko du zein neurri zuzentzaile behar diren, eta neurri horiek ezartzeko epea zenbatekoa den. Neurri horiek aldez aurretik dokumentatu beharko dira, behar bezala. Neurri zuzentzaile horiek gauzatzen direnean eta atzemandako irregulartasunak behar bezala zuzenduak izan direla ikusten duenean obra GHK-k, desadostasuna kendu egingo du, espedientea itxiaz.
3. Espedienteak erakar dezake zigorrak ezartzea kontratistari, Agiri honen VII. Kapituluaren xedatutakoaren arabera.

## **34.- DOKUMENTAZIOA KONTROLATU ETA EMATEA**

### **34.1 Dokumentazioaren kontrola**

1. Dokumentuen artxibatze sistema eta kontrol informatiko propioa ezarri eta atxiki beharko du kontratistak, kontratu hau burutzeko fase guztietan dokumentuen identifikazioa, berrikuspena, egoera eta kokapena bermatuz.

Dokumentuen artxibatze eta kontrol sistemak azpikontratazioen dokumentazioa ere kontuan izango du.

2. Kontratistak kontratuko dokumentazioa identifikatzeko sistema bat sortu eta mantenduko du zerbitzu guztietan barneratzeko, kontratistak eta GHK-k kontratuak iraun bitartean dokumentazioaren kontrola izan dezaten.
3. Dokumentazioa artxibatzeko kontratistak duen sistema informatikoak GHKri dokumentazioa eskuragarri izatea eta eskualdatze azkartasuna baimendu eta bermatu beharko dizkio.

### **34.2 Dokumentazioa ematea**

1. Kontratista behartuta dago, zerbitzuak eman bitartean GHK-k eskatzen duen guztietan, kontratuaren xedearen barne dagoen dokumentazio guztia ematera, osorik eta zuzen, barne direlarik kontratua burutzerakoan GHKk onartzen dituen aldakuntza eta hobekuntza guztiak, Agiri honetan eta kontratuaren gainerako dokumentuetan xedatutakoaren arabera.
2. Kontratistak dokumentazio hori guztia garatu behar du, kontratuari aplikagarri zaizkion kode eta arau guztiak eta indarrean dagoen legeria aintzat harturik.
3. Zerbitzuak amaitu ondoren, kontratuak iraun bitartean sortu den dokumentazio guztia emango dio kontratistak GHKri, eta zerbitzuak emateko beharrezkoak ziren lorturiko lizentzia eta baimen administratibo guztiak.

## **35.- ZERBITZUAK HIRUGARRENEK EGITEA**

### **35.1 Hirugarrenen azpikontratazioa**

1. Esleipen zenbatekoa 100eko 30a gainditzen ez duen portzentaje bateraino azpikontratatu ahal izango du kontratistak, Agiri honetan aurreikusitako baldintzetan. Kontratistak kontratuan aipatzen diren zerbitzuetatik zein azpikontratatu dituen zehaztu beharko du, eta ze zerbitzuetan soilik baliabideak atxikitzen diren.
2. Portzentaje hori kalkulatzeko, ez dira hirugarrengotzat hartuko kontratuaren esleipena eskuratzeko elkartutako enpresak, ezta haiei lotutako enpresak ere, betiere halakotzat

ulerturik Merkataritza Kodearen 42. artikulua definitzen dituenak. Izaera hori duten enpresen zerrenda eguneratu behar du kontratistak, tartean diren enpresen arteko harremanak aldatzen diren heinean.

### **35.2 Hirugarrenek emandako zerbitzuen erantzukizuna**

1. Kontratatari dagokio hirugarrenekin kontratatzen dituen zerbitzuen kontrola. GHKk une oro eska dezake zerbitzuen martxari buruzko informazioa, eta egoki deritzen ikuskapen bisitak egin ditzake bertara.
2. Zernahi gisaz, kontratista izango da erantzule, GHKren aurrean, hirugarrengoekin egiten dituen kontratuen gauzatzeak edo indargabetzeak sor ditzakeen ondorioez, eta bera izango da, baita ere, ondorio horien erantzule bakarra haien aurrean.

## **36.- PROIEKTUA ALDATZEA**

### **36.1 Aldakuntzak kontratistak hala eskatuta**

Sektore Publikoko Legearen Testu Bateratuko 106. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, kontratu-aldaketa egin ahal izateko baldintzak zehaztu behar dira.

Kontratistak ezin izango du Proiektuan aldaketarik sartu ez egin, ezta kontratuko dokumentazioan ere, GHKk aldaketari buruzko onarpen tekniko eta ekonomikoa emateke, eta, hala dagokionean, prezioaren ordainketa hein batean finantzatzen duten finantza-entitateena, idatziz justifikatuta.

Zehazkiago, kontratistak berariaz uko egiten dio Kode Zibilaren 1592. artikulua arautzen duen isilbidezko onarpenari.

### **36.2 Aldakuntzak GHKk hala eskatuta**

1. GHKk beretzat gordetzen du kontratatari beharrezkotzat jotzen dituen aldakuntza txikiak eskatzeko eskubidea, baldin eta ez badute eraginik prezioan, ezaugarri tekniko nagusietan edo obren plangintzan.
2. Prezioa, ezaugarri teknikoak edo emate epeak aldarazten dituzten aldakuntzak ezarri ahal izango ditu GHKk, hala behar bada, prezioaren ordainketaren zati bat finantzatzen duten finantza erakundeek aurrez onetsita.

## **37.- ZERBITZUAK HARTZEA**

### **37.1 Zerbitzua gauzatzeko epea**

1. Kontratu honetako zerbitzuak emateko epea **urte batekoa (1)** izango da, kontratua gauzatu eta biharamunetik kontatzen hasita, eta 4. klausulan aipatu balizko luzapena kontuan izanik.
2. Kontratista behartuta dago ez bakarrik kontratua gauzatzeko epe orokorra betetzera, baizik konprometituta duen Lan Egitarauan jasotzen diren zatikako epe guztiak betetzera ere, bertan zehaztuko baitira obrak egiteko urrats guztiak eta horietako bakoitza gauzatzeko epea.
3. Epe orokorrak edo zatikakoak ez baditu betetzen kontratistak bere ardurapeko arrazoiengatik, GHKk aukera izango du edo kontratua indargabetzeko, behin betiko bermea galaraziz, edo Agiri honetan xedatzen diren zigorrak ezartzeko. Zigor horien zenbatekoen barne egon daiteke GHKk kalte-ordaina jasotzeko eskubidea, kontratistaren berandutzeak sortzen dizkion kalte-galerak berdintzeko.
4. Atzerapena kontratistari egotzi ezin zaizkion arrazoiek eragin badute, eta adierazitako epean konpromisoak betetzeko eskaintza eginez gero, GHKk, gutxienez, galdutako denbora adinako luzapena emango dio, kontratistak txikiagoa eskatzen ez badu.

### **37.2 GHKren jarduera, Gipuzkoako Hondakinen Kotsortzioaren kontura**

GHK-k berezko izaeraz jarduten duenez, zerbitzuen kontratazioa eta horiek jasotzeko jarduerak Gipuzkoako Hondakinen Kotsortzioaren kontura egin direla joko da, azken horrek eskuratuko baititu emandako zerbitzuen emaitzak.

## **38.- BERME ALDIA**

1. Zerbitzuen berme-epea urte betekoa izango da, kontratua likidatzen den momentutik aurrera, baldin eta kontratistak ez badu epe luzeagorik zehazte bere eskaintzan, kasu horretan, kontratistak eskaintzan zehaztutakoa izango baita berme-epea.
2. Berme-epean zehar, kontratistak beharrezko jarduera guztiak egingo ditu kontratua behar bezala egikaritzen dela bermatzeko, baita kontratua behar bezala betetzen dela bermatzeko ere, emandako zerbitzuaren emaitza eta ezaugarriak kontratuko dokumentazioan ageri diren baldintzetara egokituz. Jarduera horiei guztiei lotutako kostuak bere gain hartuko ditu kontratistak.

## **V. KAPITULUA: KONTRATUAREN PREZIO EKONOMIKOA**

### **39.- KONTRATISTAREN ORDAINSARIA**

#### **39.1. Kontratistaren ordainsariaren osagaiak**

Kontratistaren ordainsaria izango da kontratu honen xede diren zerbitzuak emateko hark eskainitako prezioa, kontratuaren dokumentuetan finkatzen diren baldintzen arabera. Ordainsaria kalkulatzeko, itzultzera BIDALITAKO hitzak zenbatu eta 300-engatik zatituko da, zehazki itzultitako orrialde kopurua lortuko delarik. Orrialde kopurua esleipendunak eskainitako prezioarengatik biderkatuko da.

#### **39.2. Fakturazioa eta ordainketa**

Oro har, GHKk banku transferentzia bidez egingo ditu, kontratistak eskatuta beste ordainketa modu bat hitzartzen ez duen bitartean.

Hogeita hamar (30) egun naturaleko epearen barnean ordainduko fakturak, GHKk jasotzen dituen egunetik kontatzen hasita. Faktura igortzen denetik 7 eguneko epean jakinarazi beharko zaio GHKri.

Ez da ordainketarik egingo GHKk faktura aurrez aztertu eta onartu gabe.

#### **39.3. Prezioen berrikuspena**

Kontratuaren gauzatzea kontratistaren arriskuz eta menturaz egingo da, prezio berrikuspenik egiteko biderik gabe.

## **VI. KAPITULUA: ZIGORRAK**

### **40.- KONTRATUAREN BEHARKIZUNAK EZ BETETZEAK SORTUTAKO ZIGORRAK ETA ISUN HERTSATZAILEAK**

1. Kontratuan xedatutako beharkizunak ez betetzeak ekarriko du kontratistari ezartzea kapitulu honetan jasotzen diren zigorrak, bazterrean utzi gabe gerta daitezkeen kalte-galeren ordaina emateko betebeharra.

2. Jarraian arautzen den ez betetze eta zigorren araubideak ez du zerikusirik kontratuaren lotura hertsiaz kanpo diren arau-hauste eta isunekin, sektore honetako araudietan aurreikusten diren irizpide eta araez erregulatzeko baitira.
3. Kontratatik eskaintza aurkezte hutsarekin, Agiri honetan jasotzen den zigor araubidea onartzen du.

#### **41.- EZ BETETZEEN MAILAKETA**

1. Zigor araubide honen ondorioetarako, kontratistaren ez betetzeak larriak eta arinak izan daitezke.
2. Ez betetzeak delitu edo hutsegite baten izaera baldin badu, agintari judizial eskumendunei jakinaraziko die kontratazio organoak.

##### **41.1 Ez betetze larriak:**

Ez betetze larriak dira:

- a) Aplikagarri diren arauetan xedatutakoak osorik edo zati batean ez betetzea kontratistak, bereziki arau laboral, tekniko, segurtasuneko edo ingurumenekoetan xedatutakoak, edo arau horien xedez betebeharreko diren jarduerak ez egitea.
- b) Eskaintzan proposatutako langileen esleipen edo dedikazioari buruzko beharkizunak ez betetzea.
- c) Kontratuaren xede den prestazioaren zati bat azpikontratzea Agiri honetan jasotzen diren baldintzak eta araubidea aintzat hartu gabe.
- d) Kontratatik nahitaez sinatu behar dituen aseguru polizak ez kontratatzea, edo haiekiko beharkizunak ez betetzea.
- e) Kontratu hau gauzatzeko beharrezko diren lizentziak, ahalmen emateak, baimenak eta gainerako baldintza juridiko-administratiboak ez eskatzea edo ez eskuratzea.
- f) Zerbitzuen gainbegiratze edo ikuskapen lanetan GHKren eginkizunak oztopatzea.
- g) Konprometitutako bitarteko materialak edo giza baliabideak kontratuaren zereginetara ez jartzea, hain zuzen bete gabe Kontratuaren Zuzendaritzak emandako jarraibideak edo kontratazio organoaren beste edozein ordezkariak ezarritako jarraibideak.
- h) Lan Egitarauan ezarritako aurreikuspenetakoren bat ez betetzea.



- i) Obraren exekuzioa, guztiz edo hein batean, justifikaziorik gabe geldiaraztea edo etetea.
- j) Zerbitzuak emateko epe osoa ez betetzea, epe partzialak ez betetzea bezalaxe hauek guztirako epea ez betetzea ekar dezaketenean.
- k) Langileei buruzko beharkizun laboral edo sozialak ez betetzea.
- l) Segurtasun eta Osasun Planaren beharkizunak orobat ez betetzea.
- m) Kontratuaren gauzatze aldian zehar hiru (3) ez betetze arinez zigortua izatea.

## **41.2 Ez betetze arinak**

Kontratuaren gauzatze urratsetan, ez betetze arinak dira:

- a) GHKren edo bere ordezkarien iruzkinak ez jasotzea Lan Egitarauan.
- b) GHKren edozein ordezkari emandako jarraibideak ez betetzea, ez betetze horrek laneko prozedurei eta obraren ezaugarriei edo obran zeharreko segurtasunari eragiten ez badie.
- c) Kontratuaren gauzatze egitaraua edo zatikako epeak arinki ez betetzea, ez badie eragiten ez lanen arintasunari edo segurtasunari, eta ez badakar kontratua gauzatzeko epe orokorra ez betetzea.
- d) Kontratuaren dokumentuetan eskatzen diren txosten eta dokumentuak aurkezteko hamabost (15) egun baino gehiagoko atzerapena izatea.
- e) Aurkezten den azken dokumentazioak akatsak izatea.
- f) Kontratuaren dokumentuetan edo arau aplikagarrietan finkatutako gainerako beharkizunak ez betetzea, aurrez larritzat mailakatuak izan ez badira.

## **42.- ZIGORRAK ETA ISUN HERTSATZAILEAK EZARTZEA**

### **42.1 Zigorren araubidea**

Kontratataren ez betetzeek ondorio juridiko hauek izan ditzakete:

- a) Ez betetze arinek hirurehun (**300,00**) eurorainoko zigorra ezartzea eragingo dute.

- b) Ez betetze larriek ekarriko dute hirurehun euro (**300,00 €**) eta hiru mila euro (**3.000 €**) bitarteko zigor bat ezartzea, klausula honen hurrengo apartatuan xedatzen dena baztertu gabe.
- c) Azaldutako zigor horiez gain, GHKk zigor hertsatzaileak ere ezarri ahal izango dizkio kontratistari, beharkizunak ez betetzeko jarrerari eusten badio, betiere alde zurretik eskatu izan bazaizkio eta finkatutako epean bete ez baditu. Isunaren zenbatekoa hirurehun eurokoa (**300,00 €**) izango da eguneko.
- d) Kontratuaren epeak, orokorrak nahiz zatikakoak, betetzen ez badira, GHKk aukera izango du edo kontratua indargabetzeko, behin betiko bermea konfiskatuz, edo zigor hertsatzaileak ezartzeko, atzerapenaren egun natural bakoitzeko **0,20 euro zehazki, kontratuaren mila bakoitzeko**, ez betetze hori gertatzen den unetik bertatik aurrera.

Atzerapenagatiko zigorra **kontratuko prezioaren % 5aren** multiplora iristen denean, kontratazio organoak kontratua edo indargabetzea edo jarraitzea erabaki dezake, zigor berriak jarritz.

- e) Zernahi gisaz, kontratistaren kargura izango dira arau-haustea ekarri zuen egintza zuzentzeko neurrien kostuak.
- f) Ezar daitezkeen zigorrez gain, kontratista berandutzen bada ez betetzeen ondorioz sortutako egoerei konponbidea bilatzen, hutsuneak betetzeko behar diren erabakiak une oro emateko ahalmena izango du GHKk, eta erabaki horietatik gasturik sortzen baldin bada, bermearen kargura estaltzeko.

## 42.2 Zigorrak mailakatzea

GHKk zigorrak ezartzen dituenean, egokitasun bat gorde beharko du, ez betetzearen larritasuna eta ezarritako zigorra pareko izan daitezen, mailakatze horretan irizpide hauei jarraituz: (i) ez betetze mota; (ii) intentzionalitatea izatea; (iii) sortutako kalteen izaera; (iv) urtebeteren buruan izaera bereko ez betetze bat baino gehiago metatzea; eta (v) kontratistak eskuratutako irabazia.

## 42.3 Zigorrak eta isun hertsatzaileak eguneratzea

Agiri honetan aurreikusten diren zigorren eta isun hertsatzaileen zenbatekoa urtero eguneratuko da, estatuko KPIrekin bat, edo autonomia erkidegokoarekin bat berau bada baxuena.

## **VII. KAPITULUA: KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEA ETA IRAUNGITZEA**

### **43.- KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEA**

Kontratazio organoak kontratuaren gauzatzea osorik edo zatika bertan behera uztea erabaki dezake, ustekabeko arrazoiengatik, kontratistari ordainduta benetan eragiten zaizkion kalte-galerak.

Aurrekoa baztertu gabe, kontratistak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, kontratuaren gauzatzea hiru (3) hilabetez beherako epe batean edo ezinbesteko arrazoiengatik eteten baldin bada.

### **44.- IRAUNGITZE ARRAZOIAK**

Obra kontratu hau betetzen denean edo indargabetzen denean iraungiko da.

#### **44.1 Kontratua betetzea**

Kontratua iraungiko da kontratistak guztiz betetzen dituzenean kontratu honen xede diren prestazioak, kontratuaren dokumentuetan diren baldintza guztiak errespetatuz eta GHKk onetsirik, Agiri honetako 4. klausulan xedatutako epearen barruan edo, behar izanez gero, epe horren gainean erabakitzen diren luzapenen edo murrizpenen barruan.

#### **44.2 Kontratua indargabetzea**

##### **44.2.1 Indargabetze arrazoiak**

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 308 artikuluan izatera orokorrean aurreikusitako guztiez gain, eta Agiri honetan edo arau aplikagarrietan ezarritako beste arrazoiak baztertu gabe, kontratu hau indargabetzeko berariazko arrazoiak dira:

- a) Behin betiko bermea eratu edo doitzeko beharkizunak ez betetzea, Agiri honetan ezarritako baldintzetan eta epeetan.
- b) Lan Egitarauan obrak egiteko aurreikusten den epe orokorrean edo zatikako epeetan berandutzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 212. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- c) Kontratuaren lagapena egitea, horretarako xedatuak diren baldintzak bete gabe.
- d) Azpikontratazioari buruzko beharkizunak ez betetzea.

- e) Lanak egitera xedatutako langile edo ekipa kopurua eskasa, edo bitartekoak urriak izatea, GHKren iritzi arrazoituaren arabera, epeak ez betetzeko arrazoi izango direla ikusten bada.
- f) Kontratatistak oztopo larriak ipintzea GHKren kontrol eta ikuskapen eskumenei, ekintza edo ez-egite faktiko edo juridikoen bitartez, datuak ezkutatzuz edo faltsutuz, kalitate mailak beheratuz, edota halakoen adierazgarri izan daitekeen beste ezer eginez.
- g) Bi (2) hilabeteko epearen barruan hiru (3) ez betetze larriengatik zigortua izana. Kontratuaren gainerako funtsezko beharkizunak ez betetzea.
- h) Gainerako funtsezko kontratu-obligazioak ez betetzea.

Aurreko indargabetze arrazoiak GHKren alde ezartzen dira, hark baliatu ahalko baititu interes orokorrak gomendatzen duenean edo kontratua iraungitzea, edo kontratistari kontratua zuzen bete dezala eskatzea, bidezko diren zigorrak eta isunak ezarrita.

#### **44.2.2. Indargabetzearen ondorioak**

1. Indargabetze arrazoiak gertatzen direnean, kontratazio organoak konpentsatu eta likidatuko ditu alde biek elkarrekin, kontratua gauzatzearen ondorioz eta kontzeptua dena dela zorretan dituzten zenbatekoak, aurrez kontratistari entzunda, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 309. artikuluan xedatutakoaren arabera.
2. Obren hasiera sei hilabete baino gehiagoko epeaz etetea erabakitzen badu GHKk, kontratistaren eskubidea izango da esleipen prezioaren 100eko 3 jasotzea, kalte-ordain gisa, kontzeptu guztiak barne direla.
3. Obrei beste enpresari batek edo GHKk eman behar badie jarraipena premiatasunez, segurtasun arrazoiengatik edo eraikiak barrena jotzea saihesteko, kontratazio organoak jarraipena erabaki dezake, kontratistari jakinarazita egindako obren likidazioa, bazter utzi gabe kontratistak organo horren aurrean aurkaratu dezakeela egindako balioespena. Kontratazio organoak horren gaineko ebazpena emango du hamabost eguneko epearen barruan.
4. Kontratua bi aldeen adostasunez indargabetzen bada, alde bakoitzaren eskubideak egokituko dira bien artean balioz hitzartutakoetara, ahal den guztietan.

**I. ERANSKINA. ADIERAZPEN ERANTZULEA SEKTORE PUBLIKOKO  
KONTRATU LEGEAREN TESTU BATERATUAK 60. ARTIKULUAN AIPATU  
KONTRATATZEKO DEBEKU EGOERAN EZ DAUDELA SARTUTA DIOENA.**

(eredu hau aurkeztea beharrezkoa da)

..... jaunak/andreak (NAN zk.: ..... ) bere izenean, edo, hala badagokio, ..... enpresaren ordezkari diharduela (IFZ: .....; helbidea: .....; fax zk.: ....., eta posta elektronikoaren helbidea: .....),

**ADIERAZTEN DU:**

Bai berak bai ordezkatzeko duen enpresariak ahalmena dutela Herri Administrazioarekin kontratuak egiteko. Izan ere, jarduteko gaitasun osoa dute eta ez daude sartuta Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateratuak 60. artikuluan jasotako inolako egoeratan.

Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean dagoela, indarrean dauden xedapenek ezarri bezala

Eta jasota gera dadin eta behar den ondorioak izan ditzan, ardurapeko adierazpen hau sinatzen du \_\_\_\_\_ko \_\_\_\_\_ren \_\_\_\_\_(e)an

Izp:

Enpresaren zigilua

## **II. ERANSKINA. PROPOSAMENA GHK-REN SARRERA ERREGISTROAN ENTREGATZEKO EREDUA**

..... jaunak/andreak (NAN zk.: ..... ) bere izenean, edo, hala badagokio, ..... enpresaren ordezkari diharduela (IFZ: .....; helbidea: .....; fax zk.: ..... , eta posta elektronikoaren helbidea: .....),

### **ADIERAZTEN DU:**

Gaurko egunean, ..... (ordua) direnean (\*), 3 kartazal entregatu dituela eta bertan, **“GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA SAU ETA GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOARI ITZULPEN ZERBITZUA”** deituriko zerbitzuen lehiaketarako bere proposamena jasota dagoela.

Hernanin, 2016 ko .....

Izp.:

(aurkezlearen sinadura)

### III. ERANSKINA. ENPRESA ATZERRITARREN DEKLARAZIOA

“..... jaunak/andreak, helbidea . .  
 .....  
 ..... (e)n, NAN zk. .... ,  
 telefonoa ..... , eta helbide elektronikoa .....  
 dituenak, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun erabatekoaren jabe izanik, bere izenean (edo  
 ..... , helbidea  
 .....(e)n, eta NAN edo IFK zk.  
 ..... [pertsona fisikoa edo juridikoa den kontuan izanda] dituenaren  
 ordezkaritzan), **“GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA SAU ETA  
 GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOARI ITZULPEN ZERBITZUA ”**  
 kontratuari buruzko publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidezko lizitazioan parte hartzeko  
 GHK-k egindako gonbita jasota.

#### DEKLARATZEN DU

- 1.- Kontratutik zuzenean edo zeharka etor litezkeen gorabehera guztietan Espainiako edozein motatako epaitegi eta auzitegien mende jartzen dela eta, hala dagokionean, lizitatuazileari atzerrian egokitu dakioken foru jurisdikzionalari uko egiten diola.
- 2.- Europar Batasunetik kanpoko atzerriko enpresa bada, Espainian sukurtsal bat irekia duela egiaztatzen duela, egin beharreko eragiketarako ahalordedunak edo ordezkariak izendatuta dauzkala, eta Merkataritza Erregistroan inskribatuta dagoela.
- 3.- Konpromisoa hartzen duela dokumentazioa gaztelaniara edo euskarara ofizialki itzulita aurkezteko, APKLEOko 23. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Eta jasota gera dadin eta behar den ondorioak izan ditzan, ardurapeko adierazpen hau sinatzen du  
 \_\_\_\_ko \_\_\_\_ren \_\_\_\_ (e)an

Sin.: \_\_\_\_\_

#### IV. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKORAKO EREDUA

..... jaunak/andreak,  
adinez nagusia bera (NAN zk.: .....),  
..... -ren ordezkari diharduela (helbide soziala:  
.....; IFZ: .....),

#### AZALTZEN DU

Lehenengoa.- Baduela **“GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA SAU ETA GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOARI ITZULPEN ZERBITZUA”** delakoaren zerbitzuak lehiaketaren eta horretan izango diren Baldintza Administratibo Berezien Agiriaren berri.

Bigarrena.- Bere ardurapean aitortzen duela enpresa lizitatzailari ez diola eragiten indarrean dagoen legeriak Administrazioarekin kontratatzeke aurreikusitako debekuetako batek berak ere, gaitasun juridikoa eta proiektuaren xede diren lanak egiteko behar beste bitarteko badituela, eta kontratatzeke eskatzen diren berariazko baldintzak betetzen dituela.

Hirugarrena.- Esleipendun ateraz gero, zerbitzuak eskaintzan adierazitako baldintzen arabera beteko dituela, onartutako baldintza agirietan proiektuari buruz ezarritako eskakizun eta baldintza guztiak uneoro zorrotasun osoz betez.

Laugarrena.- Bere gain hartzen duela zerbitzuak honako proposamenean adierazten den guztizko zenbatekoan gauzatzeko konpromisoa:

*Bere gain hartzen du orrialdeko \_\_\_\_\_ euroko prezioagatik (BEZ-a kanpo) kontratuan adierazten den itzulpen zerbitzua ematea..*

*Lehiaketa honen ondoriotarako, orrialde bat 300 hitzek osatzen dutela hartuko da kontuan.*

*BEZ-a orrialdeko \_\_\_\_\_ (zenbaki eta hizkiekin) eurokoa izango da.*

Bosgarrena - Edozein zerga-eremuko zergak, gastuak, tasak eta arbitraiak prezioan barneratuta daudela ulertuko da, hala Nola, kontratatzailearen irabaziak.

*(Lekua, data eta sinadura)*



## V. ERANSKINA. JAKINARAZPENAK BIDALTZEKO POSTA ELEKTRONIKOKO HELBIDEA(K)

(Beharrezkoa da eredu hau aurkeztea)

..... jaunak/andreak,  
adinez nagusia bera (NAN zk.: .....; helbidea:  
.....),  
-ren ordezkari diharduela (IFZ: .....; helbidea:  
.....),

### AZALTZEN DU

Ondorio guztietarako eta, bereziki, dokumentazio administratiboko akatsak konpontzeko eskaerak jasotzearen, posta elektronikoko kontu hau(ek) d(it)uela:

(bat baino gehiago adieraz daiteke)

Aipatutako posta elektronikoko helbide horietara dokumentazio eskaerak edo informazioa bidalita kontatzen hasiko dira Agiri honetan xedatzen diren epeak, zehazki baldintza administratiboen agirian dokumentazio administratiboaren hutsegiteak zuzentzeko epea.

(Lekua, data eta sinadura)